ttipi ttapa

472

2008ko ekainaren 12a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net

Igantziko maparen egileekin solasean 03

Igantziko toponimiaren ikerketa sakon baten ondotik Igantziko mapa kaleratu dute Kirru Sarobe eta Oskar Txoperenak. Egitasmoa herriko Euskara Batzordeak bultzatu du.

BKTko jubenilak Kopako txapeldun 52

Baztango Kirol Taldeko jubenilak Nafarroako eskubaloi Kopako txapeldun izan dira. Maiatzaren 24an jokatutako finalean 29 eta 21 irabazi zioten Lagunak taldeari.

ABEL BARRIOLA ETA OINATZ BENGOETXEA FINALEAN

04 Txapel bakarrak ezin bi buru estali

ORDOKI
altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA

Estilo ugariko mobleak



DATUAK...

• Igantziko Euskara Batzordearen ekimenez, herriko bide, inguru eta etxeen izenak biltzen dituen mapa egin dute Kirru Sarobe lesakarrak eta Oskar Txoperena igantziarrak.

• Joan den urteko apirilean egindako bigarren eskuko produktuen azokan eta Nafarroako Kutxaren *zeuk aukeratu, zeuk erabaki* proiektuaren bitartez lortutako diruarekin finantzatu dute mapa.

• 1.000 ale kaleratu dituzte, eta egileek kontatu digutenez, *«gaur egungo jendeak ezagutzen ez dituen izen aunitz ageri dira mapan».*

Kirru SAROBE eta Oskar TXOPERENA *Igantziko maparen egileak*

ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

«Guttienez galduak zeuden 100 bat toki izen berreskuratu dira mapan»

Goizalde URDANPILLETA

Nolatan hasi zineten mapa egiten?

KIRRU SAROBE: Nik gisako lan bat egina nuen Basaburuan, eta orain dela urte batzuk Lesakara etorri nintzenean bizitzera, inguru honetan halako zerbait egitea otu zitzaidan. Han eta hemen solasean, Oskar topatu nuen eta orduan hasi ginen hitz egiten.

OSKAR TXOPERENA: Udal artxiboetan eta parrokiakoetan bilatuz dokumentazioa bildua nuen, eta toponimo guztiak datu base batean sartuak nituen. Hortik abiatuta, halako zerbait egiteko gogoa nuen eta Kirrurekin elkarlanean dokumentazio hori egokitu dugu.

Garai batean txoko guztiei izena paratzen zitzaien...

O. T.: Lehengo herritarrek lotura haundiagoa zuten naturarekin, eta mendian hainbertze ibiltzen zirenez, txoko bakoitzari izena paratzen zioten. Lehenago hor zeuden eta aspaldian galduak ziren izen aunitz topatu ditut, jendeak ezagutuko ez dituenak. Erraterako, Berrizaun gainean, Arrokorriaga ageri da mapan eta hori ez du inork ezagutzen orain. Guttienez galduak zeuden 100 bat izen berreskuratu dira mapan.

«Orain paratzen diren etxe aunitzen izenak sinpleak eta erranahi haundirik gabekoak dira. Lehenago pertsona baten izena erabiltzen zen eta ondotik atzizkia paratzen zen»

Eta erabat aldatutako izenik bai?

O. T.: Toponimiaren ikerketa on baten ondorioa hori da azken batean. Dokumentazioa bilatu eta gaur egun zentzurik ez duen izen batetik abiatuz poliki-poliki gibelera joan eta hasierako izena topatzea. Basajaun-Elutsari, erraterako, orain Basallusko erreka deitzen zaio. Eta hori adituta ez luke inork pentsatuko hasiera izena zein zen.

Nola egin duzue lana?

K. S.: Nahiko ongi moldatu gara, lana bien artean banatuta. Oskarrek Igantzi ongi ezagutzen zuen, eta bere zalantzekin niri lagundu egiten zidan bila genbiltzana non egoten ahal zen aurkitzen. Mugarrien kasuan, adibidez, dokumentuetan bagenekin non zeuden eta banaka-banaka fisikoki non dauden bilatzen saiatu eta gehienak aurkitu ditut. Nire lana, alde batetik, mendian ikerketa lana egitea izan da eta gero guztia paperean argi uztea. Zortzi bat hilabete dedikatu dizkiot mapari. Oskarrek, berriz, aunitzez ere gehiago. 10 urtetan izenei buruzko ikerketa egiten egon da. Toponimia bilduz lan aunitz egina zuen, eta etxeen argazkiak ere eginak zituen.

Etxe berriak ere ageri dira, baina izenak paratzerako orduan...

O. T.: Aunitzetan behintzat ez da lehengo ohitura mantendu. Orain paratzen diren aunitz behinik behin sinpleak eta erranahi haundirik gabekoak dira. Lehenago pertsona baten izena erabiltzen zen, eta ondotik *-enea* edo *-baita* atzizkia erabiltzen zen. Dena den, gaur egun inguruarekin zerikusia dutenak ere badira, baina ez lehenagokoak bezain politak.

Lan luze baten emaitzak zer sentsazio utzi du?

O. T.: Halako lanek azken aldera sentsazio nahiko itogarria ematen dute, baina nik uste dut ondotik gelditzen denak merezi duela. Herrian halako gauza bat uztea opari polita dela uste dut eta alde horretatik hagitz gustura nago.

Txapela Leitzara baietz!

Abel Barriolak eta Oinatz Bengoetxeak buruz buruko final nagusia jokatuko dute igande honetan Donostiako Atano III.ean

Oinatz Bengoetxeak eta Abel Barriolak buruz buruko txapela jokoan i

Historian lehen aldiz, Nafarroako herri bereko bi pilotarik jokatuko dute eskuz banakako final nagusia. Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea, Bengoetxea VI.a, aurrez aurre izanen dira ekainaren 15ean Atano III.ean.
Nafarroako bi herritarren arteko lehen finala baldin bada ere, historiak badu herri bereko bi pilotarien arteko finalen aurrekaririk. 1942an, herri berekoak ez ezik, etxe berekoak aritu ziren: Azkoitiako Mariano eta Jose Mari Juaristi anaiak, Atano III eta VII.
35 urte beranduago, 1977an, Bizkaiako Axpe herriko bi bizilagun aritu ziren elkarren kontra: Roberto Garcia Ariño eta Iñaki Gorostiza.
31 urte pasatu dira, XXI. mendean sarturik eta 2008an, bi leitzarren arteko finala izanen da.

Aitor AROTZENA

Leitzan besta giroan bizi dira Barriolak Gonzalezen kontrako finalerdia irabazi zuenetik. Bi aste lehenago gauza bera egin zuen Bengoetxeak, Asier Olaizolari finalerdia irabazita.

Orain, Barriolak nahiz Bengoetxeak irabazi, badakite buruz buruko txapela herrian izanen dela. Halere, noski, pilotari bakoitzak bereari eusten dio eta txapelaren bila joanen direla aipatu digute, urte osoan lagun izanagatik, egun horretan kontrario izanen baitira.

Abel Barriola

Abel Barriolarentzat buruz buruko bigarren txapela izanen litzateke, 2002an Belokiri irabazi baitzion finalean, 22 eta 3. Urtebete lehenago finalerdian galdu zuen Beloki beraren kontra, baina lau t'erdiko txapelketan txapeldun izan zen. 2003an finalerdietako ligaxkan sartu zen, baina ez zuen finalerako txartelik lortu. Gero, lesioen ondorioz, Barriolaren gurutz-bidea ailegatu zen. Baina lanean beltz segitu zuen berriz ere goi mailara ailegatzeko itxaropenez. Horixe lortu zuen 2007ko buruz buruko-an. Eskaileraren beheko koxkan hasi behar izan zuen, baina bost partida irabazi ondotik finala galdu zuen Olaizola II.aren kontra.

Aurten lan guttiago egin behar izan du finalean sartzeko. Final-laurdenean sei tantotan utzi zuen Patxi Ruiz. Finalerdian zortzian Gonzalez. Adituen ustez txapela janzteko faborito garbia da. Esperientzia alde du, baina Abelek aipatu digunez, *«nere lehenbiziko bi finalak irabazi egin nituen eta ondotik jokatu ditudan bostak, lau t'erdian nahiz buruz buru galdu. Finalak egun bereziak dira eta esperientziak ez du balio. Partida irekia izanen da»*.

Oinatz Bengoetxea

Afizionatuetan Munduko txapeldun izan ondotik, 18 urte egin berritan Oinatzek profesionaletan debutatu zuenean, inor guttik espero zezakeen hain goiti ailegatzea. Aurrelari ttiki, bizkor, lotsagabe eta argal hark, ordea, bidea egin du profesionaletan. Egia da oraindik ez duela titulurik lortu. Binaka 2005eko finala jokatu eta galdu zuen Belokirekin batera.

Banakako txapelketako lehen bi urtetan, 2004an eta 2005ean, lehenbiziko kanporaketan galdu zuen. 2006an, Agirreri irabazi eta final-zortzirenetan doi-doi galdu zuen Eugiren kontra. Iaz bi koxka gainditu zituen, Eulate eta Leiza, baina Gonzalezen kontra galdu zuen final-laurdenean.

Aurtengoa izan da, dudarik gabe, bere urtea buruz burukoan. Partidarik estuena final-zortzirenetan

«Oinatzek txapelketa ikaragarria egin du eta finalean meritu osoz dago. Pilotari bat behetik gora horrelako ilusioarekin heltzen denean oso arriskutsua da. Beti horrela izan da eta orain duen moralarekin gehiago»

ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

oan izanen dute igandean Atano III.ean.

«Abelek esperientzia gehiago dauka maila honetako partidetan, pilotari ikaragarria da eta bera izanen da faborito, baina horrekin bakarrik ez da partidarik irabazten. Ni nire lana egiten eta txapela lortzen saiatuko naiz»

izan zuen eta 22 eta 20 irabazi zion Leizari. Gero, txapelketako ezusterik handiena eman zuen, gaur egungo txapelduna, Aimar Olaizola, menperatu zuenean. Honela, lehen aldiz finalerdietan sartu zen, baina hori ez zuen aski. Asier Olaizolari ere irabazi eta honela, ekainaren 15ean izanen du bere ibilbideko hitzordurik garrantzitsuena.

22-20 EDO 20-22

Biei finalerako pronostikoa eskatu diegu eta ados daude: *«22-20»*. Hori bai, Abelek Barriolak irabaziko duela uste du eta Oinatzek Bengoetxea VI.ak.

Kontuak kontu, irabazten duenak irabazten duela, finaleko pilotariak, jarraitzaileak eta herritarrak, orokorrean, afari batean bilduko dira Leitzako plazan. Denak elkarrekin. Txapelduna txapelarekin kontentu, txapeldunordea, herrikoen animoekin eta lagunaren txa-

Julian IPARRAGIRRE

«Abel eta Oinatzen arteko final bat irratiz ematea zen nire ametsa eta hori beteko dut»

A.A.

Bi pilotariak ongi ezagutzen ditu Julian Iparragirrek. Gaur egun Euskadi Irratiko esatari lanak betetzen baditu ere, hamasei urte eman ditu Leitzako pilota eskolan irakasle, eta ttikitatik segitu du Abel nahiz Oinatzen ibilbidea.

16 urtez Leitzako pilota eskolan irakasle izan da Julian Iparragirre eta Euskadi Irratiko esataria da orain.

Ttikitatik somatzen al zitzaien pilotarako gaia Abel eta Oinatzi?

Bai, bai… oso pilotari bereziak ziren. Oinatz ia egun osoan frontoian izaten zen, beti pilota eskuan. Gorputzez oso txikia, baina oso pilotaria zen. Urtetik urtera hobetu du, gorputza egin zaio eta nik uste baino lehenago goi mailan jarri da. Beste 4-5 urtez hobetuko du. Abel gorputzez eginagoa zen, indartsuagoa. Ez zen Oinatz bezain pilotaria, baina bere buruarekin oso exijentea zen, orain bezala.

Zein ezaugarri ditu bakoitzak?

Abel pilotari konpletoa da. Atzelaria izanik aurrelari onenak bezala sakatu eta bukatzen du tantoa. Oinatz profesionaletara pasatu baino lehen, 17 urterekin Munduko txapeldun atera zen buruz buru, eta horrek zerbait esan nahi du. Geroztik indarra hartu du, baina oraindik botera 6-7 koadroan pilota hartzen duenean kolpe hori falta zaio, baina beste errekurtsoak baditu.

Batzuk diote finalak kolorerik ez duela. Zuri zer iruditzen zaizu?

Nik final borrokatua espero dut. Ez da pilotakada askokoa izanen, bai azkarra eta erritmo ikaragarrian jokatutakoa. Abel faborito izanen da, baina berari ere azken urteetan zerbait falta zaio finaletan. Gauzak ongi egin beharko ditu, bestela Oinatzek estu hartuko du eta finala ere irabaz dezake, zergatik ez?.

Irujo eta Aimar kanporatuta txapelketaren maila apaldu dela dioenik ere bada…

Biak punturik onenean harrapatuz gero, egia da, baina horrek ez du balio. Partidak kantxan jokatu behar dira eta Oinatzek Aimarri irabazi zion eta Gonzalezek Irujori. Aurtengo bi pilotarirk onenak daude finalean.

Esatari lana bete beharko duzu. Normalean baino lasaiago edo urduriago ariko zara?

Herrirako ametsa izan da bi leitzarrek finala jokatzea. Niretzat ere bai. Duela urte batzuk Karrapen galdetu zidaten zein partida emanen nukeen gustura. Zera erantzun nuen: Badakit oso zaila dela eta ez dakit sekula emanen dudan, baina ametsa izanen zen Abel eta Barriolaren arteko finala ematea. Hori beteko dut eta gustura emanen dugu. Partida ona egin dezatela, onenak irabazi eta punto!

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
Tirada: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Gurutze Pikabea.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea…
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea…

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

2008/06/12 • ***472.*** zbk.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Composites Gureako LABen oharra

Composites Gurea S.A.ko LAB sindikatuak enpresak egin dituen kaleratzeak salatu nahi ditu. Bertze behin, enpresaburuek euren irabazien alde eginez, langileak baztertu nahi izan dituzte. Kasu honetan, nahiz eta azken urteotan irabazi garrantzitsuak lortu, bidegabeko lau kanporatze egin dituzte eta bertze sei lankide gure lantegitik 60 kilometro baino gehiagora dagoen bertze lantoki batera lekualdatu dituzte. Aipatu irabazi horiek eraikuntzari lotutako egurraren sektorea oparoaldirik onenean zegoenean prekarietatea sortu zuten ETT bidezko kontratazio masiboekin, lan arriskuak prebenitzeko ez zen inbertsiorik egin eta lortutako aberastasunaren banaketa justua egiten ez zuten hitzarmen kolektiboak paratu ziren indarrean.

Horrez gain, aunitzetan salatu dugun bezala, 2005ean enpresak lan karga taldeko bertze enpresa batera (Madme) lekualdatu zuen, Gipuzkoara, arrazoi teknikoengatik izan zela argudiatuz. Hori dena, Beran inbertitu eta lana hemen utzi beharrean. Eta orain langileak harat bidali nahi dituzte lana honat ekarri ordez.

Gure kezka ere azaldu nahi dugu kanporatze indibidual hauek zerrenda luze baten hasiera bakarrik izan daitezkeelako. Hala, Enplegua Erregulatzeko Espedientea aurkeztea saihestu dute, eta gainera, lan-agintaritzak onartuko ote lukeen zalantza dugu.

Azken bi urteotan langileok hainbat borroka egin ditugu eta kontratuen prekarizazio osoa desagertaraztea lortu dugu, eta PRL legea martxan paratu eta garatzea. %10eko igoera eragin zuen akordio ekonomikoa ere lortu genuen eta 15 egunez enpresa geldiarazi zuen mugagabeko greba ere egin genuen. Horregatik uste dugu une honetan enpresak galerarik ez duen arren, langileak kanporatzea erabaki duela langileei mendeku eginez eta kendu geniezkien botere kotak berreskuratzeko.

Gure elkartasuna adierazi nahi diegu, bai Composites-eko langile kanporatuei, eta bai lantegiak itxiz eta langileak kanporatuz gu bezala sufritzen ari direnei ere. Euren politika neoliberalek sortutako krisiaren eragina langileak sufritzearekin aski da.

Composites Gureako LAB sindikatua

Merkataritza guneen inguruan Aralarren oharra

Baztan- Bidasoako Aralarrek eskualdean merkataritza guneak zabaltzeko sukarra kritikatu du, eta hirigintza arloan herriguneak eta betiko merkataritza sustatzeko lehentasuna agertu nahi du.

Baztan-Bidasoa eskualdean denen ahotan dabiltza merkataritza guneak jartzeko egitasmoak. Berako Zalain eta Agerra auzoetan, Lesakako Landazelaietan eta Donezteben merkataritza guneak zabaltzeko mugimenduak egin dituzte hainbat promotorek. Horren aitzinean, Baztan-Bidasoako Aralarrek bere kezka agertu nahi du, bereziki zenbait udal agintarik orain arte gai honekiko erakutsi duten indefinizioa edota aldeko jarrera dela eta.

Joan zen legegintzaldian, Berako Udalak Zalain industrialdean merkataritza gune handirik ez paratzeko neurriak hartu zituen. Geroztik, Agerra auzoan gisa bereko merkataritza guneren bat irekitzeko asmoa agertu du promotore pribaturen batek.

Orain baino lehen ere, Donezteben eta Bertizaranan gisako asmoa sumatu dugu; eta azkena, aldiz, egunotan Lesakako Landazelaietan. 3.000 metro koadroko merkataritza gunea eraikitzeko bidea emanen lukeen plangintza onartzekotan da, orain arte kontrako jarrera Onin taldeak bakarrik erakutsi baitu.

Lesakako auzia, gainera, larria da guziz. Promotorearen nahietara egokitutako plana diseinatzen ari dira, etxebizitza kopurua nabarmen handituta, eta Ur Konfederazioak paratutako baldintzen ondorioz eta errentagarritasun ekonomikoa bilatzeko, merkataritza gune bat paratzeko asmoa agertu dute.

Aralar merkataritza gune handien kontra dago, eta gure herrietan bertako dendak eta herriguneak babesteko beharra nabarmendu nahi du.

Hirigintza parametro ekonomiko soilen arabera gauzatzen da udaletan, eta horri kritika

OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea.

egin, eta helburu sozialak lehenestea eskatzen du Baztan-Bidasoako Aralarrek.

Ikusi dugu inguruko hiri handi denetan merkataritza guneen zabalkundeak eragin duen kaltea betiko denda ttikiengan. Gure eskualdean, denda ttiki horiek dira herriei bizitza ematen laguntzen diotenak, gure herrien nortasuna mantentzen laguntzen dutenak. Zein herri eredu nahi dugun agerian uzten du merkataritzak. Autoa erabiltzera derrigortzen diguten merkataritza guneak, lan prekarietatea nagusi dutenak, eta sortzen dituzten lanpostuak baino gehiago desegiten dutenak. Kontsumo eredu jakin batzuk ezarri nahi dizkigute, eta kanpotik dirua egitera etorritako enpresa batzuen kontura gure herriak hil.

Herriko betiko merkataritza babestu, indartu eta lagundu behar dela uste dugu, eta horretarako, ezinbertzekoa da udal agintariek neurri zorrotzak hartzea hirigintza planetan, herriko merkatarien kontrako neurriak saihestuz.

Inoiz baino garrantzitsuagoa da arlo honetako irizpideak ezartzea udal planetan, behar diren neurriak hartuz. Eskualdean, gainera, hainbat merkataritza elkarte sortu dira azken urteotan. Horiekin elkarlanean aritzeko aukera ezin hobea dugu, udal agintari eta merkatarien artean herriguneak eraberritu eta bizitzeko beharrezko neurriak hartzeko gaitasuna behar dugu.

Baztan-Bidasoako Aralar

• 11 GALDERA LABUR •

Norbaitek maparik daukazun galdetuko balizu?
Piropoaren bertze zatia erranen ez balit, ezetz erranen nioke.

Eta "maparik ba al daukazu" galdera zuk luzatuko bazenu?
Ba piropoaren bigarren zatia erranen nioke segidan: *zure begiradan galdua bainaiz!*

Nori dedikatu diozu piropo hori?
Inori, ez dut norbait jakinarengan pentsatu.

Bote-prontoan ttipi-ttapari piropo ren bat botako zenioke?
Bat-batean bat-batean... Bortz minutuz pentsatuz gero igual bai.

Gorrizko aterpetxean zortzi lagunentzako egonaldia irabazi duzu. Norekin joanen zaren pentsatu duzu?
Bai. Aurten lesakarrekin elkartu garenez, Berakoez gain lesakarrak ere joanen dira. Zozketa egin da eta bi neska etorriko dira.

Euskal Herri mailan lehenbizikoa eta Bortzirietakoan bigarrena...
Hagitz kontent nago, ez nuen inondik ere espero.

Zer erraten dizute lagunek?
Hagitz kontent jarri ziren, eta segidan jakin nahi zuten zeinek izanen zuten Gorrizera joateko aukera.

Ikasturtea bukatzear dago, eta zer moduz joan da?
Hagitz ongi.

Pentsatua duzu urte batzuk gehiago izatean zer egin nahi duzun?
Oraindik 12 urte ditut, 13 egiteko eta urte aunitz ditut pentsatzeko.

Zer gustatzen zaizu? Kirola, idaztea...
Idaztea gustatzen zait, eta saskibaloian ere ibiltzen naiz.

Nondik dator zure izena?
Nire atta Marokokoa da eta izen berezi bat paratzea pentsatu zuten. Dunia aukeratu zuten eta Duniak *bizia* erran nahi du.

Dunia ABATAL

Euskal Herriko piropo lehiaketako irabazlea, beratarra

TURISMOA

Bertizko Interpretazio Zentroa itxita egonen da uztailaren 31 arte

Bitarte horretan barreneko edukiak eraberrituko dira

ttipi-ttapa

Bertizko Jaurerriko Natur Parkean dagoen Naturaren Interpretazio Zentroa itxita dago maiatzaren 27az geroztik, eta hala egonen da uztailaren 31 bitarte, bere edukiak berritu ahal izateko. Dena den, tarte horretan, loraategia nahiz parkeko gainerako gunean irekiak daude jendearentzat.

Interpretazio Zentroa Tenientetxea baserrian dago eta urtero 30.000 pertsonek bisitatzen dute. Zentroaren helburua parkearen balio naturalak bisitariei ezagutaraztea eta ulertaraztea da. Orain, Nafarroako Gobernuaren eta Caixa Fundazioaren arteko hitzarmenaren ondorioz, Tenientetxea egokitzeaz gain, bere edukiak erabat berrituko dira. Lanen aurrekontua 210.000 eurokoa da eta arestian aipatutako bi erakunde horiek finantzatuko dute.

Baserrian egin beharreko lanei dagokienez, oztopo arkitektonikoak ezabatuko dira, teilatua moldatuko da, komunak berrituko dira eta ingurumenarekin errespetagarriagoa den biomasa kaldera bat instalatuko da.

ARTXIBOA

Interpretazio Zentroa itxita dago maiatzaren 27az geroztik.

Edukien alorrean ere aldaketak eginen dira, natur eremuen kontserbazio estrategia berriei egokituz. Gisa berean, paneletan biltzen den informazioa eguneratu nahi da eta hizkuntz aniztasunaren formatuetara egokituko da. Erakusketetarako baliabide modernoagoak eta mantenimendurako eta aldatzeko errazagoak ere paratu nahi dira.

Bisitariek gehien baloratzen duten baliabidea —bigarren solairuko ikusentzunekoa— teknologia berrietara egokituko da eta ikusentzulearekin elkar eragite handiagoa bilatuko du.

Bertizko Natur parkea Natura 2000 sareko partaidea da eta abudo, Erabilera eta Kudeaketarako Plan Gidaria onartuko da. Berriki, Turismo Kalitatearen Q Ziurtagiria ere berritu du Bertizko Parkeak, bisitariei eskaitzen dien zerbitzuari abala ematen dion ziurtagiria.

2007an, Nafarroako Gobernuaren eta Caixa Fundazioaren arteko akordioaren bertze ekimen bat egin zuten Bertizko Parkean, zentzumenen ibilbidea osatuz. Adina edo egoera fisikoa edozein dela ere, ibilbidea denei eskaintzen zaie horrela.

GIZARTEA

Sri Lankako tsunamian kaltetu zirenei laguntzen Toki-Onan

ttipi-ttapa

Hondamendi haundia eragin zuen duela lau urte Sri Lankan izandako tsunamiak. Milaka hildako eragin zituen eta ordurarteko tsunamirik okerrena izan zen. Bada, Berako Toki-Ona Institutuan Nafarroako bertze zazpi ikastetxerekin batera, Nafarroako Kutxaren Tribucan ekimenaren bitartez Sri Lankako kaltetuen alde aritu dira lanean ikasturte honetan. DBH 3. mailako 30 ikasle hamabortzero elkartu dira, lau fasetan banatutako lana egiteko: urrian eta azaroan tsunamia izan zen zonaldea ezagutu zuten; abenduan eta urtarrilean sentsibilizazio kanpaina; otsailean eta martxoan ekintzaile batek dituen ezaugarriez aritu ziren eta apirilean eta maiatzean, azkenik, proiektua martxan paratu zuten. Azken fase horretan, tsunamia jaso zuten tokiko emakumeek egindako poltsak saldu zituzten Beran eta Lesakan, eta jasotako dirua Sri Lankan eraikitzen ari diren ikastetxe batentzat bidaliko dute. Ekimenari akabera emateko ekainaren 16an bukaera besta eginen

PIKABEA
haratagia janariak
Alberto RETEGI abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA
TAILERRAK ALMANDOZ
• Mekanika • Karrozeria • Ibilgailuak
• Elektrizitatea • Kamioiak • Furgoneta - 4x4
Faxa: 948 625 171 • Mug.: 679 892 032
Banarta, 18 • Alkalaga Ind. • LESAKA

Higiezinen Agentzia

Zerbitzu juridikoa eta teknikoa

Parrokia, 15 behea • DONEZTEBE • Tfnoa/Faxa: 948 451 919 • Mugikorra: 659 930 110

ongi pasa bestak!

ARIZKUN zerrategia
Tel.: 948 453 304
Dantxarinea errep.
ARIZKUN
• zurezko teilatuak
• zerrategia

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - 948 453375 • Faxa: 948 456201
Ordoki Auzoa - ARIZKUN

JOSE LUIS ITURBIDE IRISARRI
LUADOS Y BARNIZADOS
CL TXIMINDO, 48 A - 2.C
31713 ARIZKUN
NAVARRA
TELF. 948 45 30 08
TELF. MOVIL 696 35 74 96

Outarimuno
Ekologikoki ekoiztutako arrautzak
Ongi pasa bestak!!
Outaria baserria - ARIZKUN - Tfnoa: 616 756 359

BERRO-BIDE
Nekazaritza eta industria tresnen konponketa, salmenta eta alokairua
Tel: 948 453 425
Ordoki - ARIZKUN

JAURENA
Telefonoak:
948 453 451
619 914 048
Ordoki Ind. • ARIZKUN

DOLAETXEA
ostatua
Bestak ongi pasa!
Tfnoa: 948 453002
ARIZKUN

ONGI PASA BESTAK!!

ARIZKUN

ekainak **20** ORTZILERIA

12:00 Dianak, txupinazoa eta “gazteen luntxe”
13:00 **TXOPO GORATZEA**
14:00 **TXOPO GORATZAILEENDAKO BAZKARIE**
21:30 **BAZTAN ZOPAK** Agerraldek alaiturik
23:30 **KONTZERTUEK: SARKOR, ERRUGABE**
02:30 Dantzaldia **AGERRALDEREKIN**
05:00 **ZIZTOR JATIA**

21 LAUNBETA haurren egune

10:00 Dianak, gaitariak eta erraldoiak
11:00 Haurrendako **PUZGARRIEK eta KARS-ak**
14:00 **HAURRENDAKO BAZKARIE**
16:30 **HAURRENDAKO TAILERRAK**
17:30 Plater tiraketa Bagordin
18:00 **TXOKOLATADA**
20:00 **-22:00 / 1:00-5:30** Dantzaldia **TRIKIDANTZ** taldearekin
22:00 **MUTILDANTZAK eta GAITA**
05:00 **ZIZTOR JATIA**

23 ASTELEHENA San Juan bezpera eta zikiro egune

10:00 Dianak
12:00 **MUS IÑEZTURE**
14:00 **ZIKIRO JATIA**
ondotik **POTEOA** Zizurreko txarangakin
19:00 **- 21:00** Dantzaldia **KIKI BORDATXO** taldearekin
21:00 **SAN JUAN SUEK eta EZKIL JOTZEA**
ondotik **ANTZERKIA**
22:00 **MUTILDANTZAK eta GAITA**
24:00 Dantzaldia **KIKI BORDATXO** taldearekin

22 IGENDIA

10:00 Dianak, gaitariak eta erraldoiak
17:00 Herrikoen arteko **PILOTA DESAFIOA**
20:00 **TXUTXIN IBAÑEZ Y LA CIUDAD DE MEXICO**
22:00 **MUTILDANTZAK eta GAITA**
24:00 Dantzaldia **AGERRALDEREKIN**

24 ASTEARTEA San Juan egune

10:00 Dianak
11:00 **MEZA NAUSIE**
12:00 **MUTILDANTZAK, SOKADANTZA eta HERRIKO LUNTXE**
18:00 **MOTOSIERREKIN FIGUREN ERAKUSKETA** eta ondotik hauen sorteoa.
20:00 **- 22:00** Dantzaldia **BIXENTE**kin
ondotik **GAIXOA NI eta TXOPO BOTATZIA**

ERRATZU

ekainak 27 ORTZILERIA

20:00 **TXUPINAZOA eta EZKIL JOTZIA**
21:00 **BAZTAN ZOPAK** Kastonean Frantxiskok alaiturik
23:30 **KONTZERTUEK: SARKOR, ERRUGABE**
02:30 Dantzaldia **AGERRALDEREKIN**
00:00 DANTZALDIA

28 LAUNBETA haurren egune

10:00 Argisoinuek
11:00 **HAURRENDAKO JOLASAK**
13:00 **HAURRENDAKO BAZKARIE**
15:30 **HAURRENDAKO TAILERRAK**
17:30 **HAURRENDAKO JOLASAK**
18:00 **BERTSO POTEOA**
Iñigo Mansizidor "Mantxi"
Iñigo Izagirre
Julen Zulaika
Jon Barberena
20:00 Dantzaldia **LAIOTZ** ekin
21:30 **MUTILDANTZAK,GAITA eta LARRAINDANTZA**
00:30 Dantzaldia **LAIOTZ** ekin

29 IGENDIA San Pedro egune

10:00 Argisoinuek
12:00 **MEZA**
13:00 **MUTILDANTZAK eta LUNTXA** Kastonean
16:30 **GINKANA**
18:30 **KANTALDIA**
19:30 **LOS GAVILANES mariatxia**
21:30 **MUTILDANTZAK, GAITA eta LARRAINDANTZA**
22:00 **SU ARTFIZIALAK**
22:30 **KANTALDIA PANPI PORTUGAL**
00:30 **KANTALDIA LUZIANOREKIN**

ekainak 30 ASTELEHENA Zikiro Jatea

10:00 Argisoinuek
11:00 **PILOTA PARTIDE** Gorostapolon
13:30 **ZINTZUR BUSTITZEA**
14:30 **ZIKIRO JATEA** alaiturik, magraren zozketa, sokatira…
21:30 **MUTILDANTZAK,GAITA eta LARRAINDANTZA**
22:00 **KONTZERTUA** Zubi-Puntan
00:00 **DANTZALDIE Franziskorekin**





DONEZTEBEKO BESTAK 2008

Ekainaren 27tik uztailaren 1era

DONEZTEBEKO UDALA

Doneztebeko Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

KONTXA
Gasolindegia

✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean etxera eramanen dugu

✓ Garraio-enpresetan depositoak jartzen ditugu

KONTXA
kafetegia

✓ Bokadiloak eta Platerak

✓ Ogi egin berria

Ongi pasa bestak!

Tel: 948 450 272 · Faxa: 948 450 810 · DONEZTEBE

DONEZTEBE

ekainak 27 ORTZIRALA

20:00 **ALTXAFERUA**
Segidan, CORCOR txarangarekin eta txistulariekin kalejira. Ondotik zopa-afaria Doneztebeko zenbait establezimenduetan.

23:30 Gazte Burrunbak antolatutako KONTZERTUAK:
ERRUGABE (Doneztebe), **OCULTO** (Elizondo), **D.J. LUISMI**, **ANESTESIA** (Tolosa).

ekainak 28 LARUNBATA

09:00 Diana **CORCOR** txarangarekin.

10:00 Tren txu-txua herri osoan eta puzgarriak igerilekuan.

11:00 Erraldoien bilgunea. Elizaren ataritik aterako dira, eta herri osoan ibili eta gero, Bearzana pilotalekuan bukatuko dute.

18:00 **AIZKORA-APUSTUA** Bearzana pilotalekuan.

19:00 **CAPOEIRA** Santa Luzia plazan.

20:00-22:00 Dantzaldia Santa Luzia plazan **JALISKO BAND** orkestraren eskutik.

22:30 **ZEZEN-SUZKOA** Bearzana pilotalekuan.

01:00-04:30 Dantzaldia Santa Luzia plazan **JALISKO BAND** orkestraren eskutik.

Mendiburu
aziendak · tratantea
Angi pasa
herriko bestaki!
Tfnoak:
608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

TABERNA ZAHARRA
Merkatarien k. 11 • DONEZTEBE • Tfnoa: 948 450 007

HONORIO
TABERNA

Doneztebe autoeskola
A1 - A - B - BTP
C1 - C eta E karnetak
ateratzen ahal dira
Besta onak pasa !
☎ 948 451 929
Leitzako errepidea, 2 behea · DONEZTEBE

BAR
TITI
angi pasa bestaki
Ameztia, 7 · ☎ 948 450 271 · DONEZTEBE

IRRINTZI
OSTATUA
Aurtengo bestak umore ederrean pasatu
Merkatarien karrika 28
☎ 948 451826
DONEZTEBE

Pitti
ESKABAZIOAK S.L
616 513 491
Ameztia, 1 · Tel/Faxa: 948 451 468
31740 DONEZTEBE
eskabadora ttikia
Herri lanak Hondeaketa
garraiatzeko makinen alokairua
eraispen eta lur-mugimenduak

BIXEN ostatua
948 450 383 · DONEZTEBE

SALDIAS
HARATEGIA
Bertako haragi freskoetan espezializatuak
Etxeko taloorra
Karrika Nagusia, 21 · ☎ 948 450191 · DONEZTEBE

BERATARRA
ARGIÑAK
Jose Ignacio MARITORENA LARRALDE
DONEZTEBE 670 489 337
Pedro BERASATEGI DAGERRE
BERA 617 346 378

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 333

ekainak 29 IGANDEA

09:00 Diana **CORCOR** txarangarekin.

11:00 **MEZA NAGUSIA** San Pedro Apostoluaren omenez Mendi abesbatzak giroturik honako errepertorio honekin: Eslavaren “Tu es Petrus” eta eta J.A.Irigoyenen “Agur Doneztebe”. Ondotik, bandera astintzea, Trapatan eta bertze tradiziozko dantza batzuk dantzarien eta txistularien eskutik.

11:00 **ERRALDOIEN** eta **BURUHANDIEN** irteera txistularien bandak lagundurik.

13:30 Segidan, udaletxearen azpialdean **APERITIBOA**.

17:00 **ERREMONTEA** Doneztebeko eskola eta **HERRIKO PROFESIONALAK**

20:00 -22:00
24:30 -03:30 Dantzaldia **LAIOTZ** orkestaren eskutik

22:30 **SU ARTIFIZIALAK**

ordua eskatu
GIZON ETA EMAKUMEENDAKO
MAITE ileapaindegia
Solarium-a
Mourges Etorbidea, 4 ✆ 948 451 780 - DONEZTEBE

AROZENA OSTATUA
Gosariak eta bazkariak
Eguzki Eder, 3 DONEZTEBE Tfnoa:948450443

Alicia T. Erlanz
SERVI-LAN
Egin behar dituzun lan txiki horientzat, Gremioen koordinazioa
ofiziale guztiak SERVI - LANen
Elizagibela, 5 - DONEZTEBE - Tel. 948 456193 Fax.948 450760

Nekazari Zerbitzuak
Vicente Arocena Andueza
Pentsuak • Ongarriak • Haziak
Oilasko eta oilandak astero ortzegunetan • Kaiolak
Mourges, 20 - 31740 DONEZTEBE
Tfnoa/Faxa: 948 45 18 45 Mugikorra: 610 25 85 85

ANTONIO ARTAZCOZ GOÑI
Merkatariak 8,
Tfonoa: 948 450 081
DONEZTEBE
-LOTERIA PRIMITIVA
-KINIELAK
-PELUKEROA

ZAPATADENDA
PAPERTEGIA
ESTANKOA
Tel eta Faxa: 948 450 289
e-posta: costiz@teleline.es
Parrokia 17• DONEZTEBE
CASA COSTIZ

Juanotena
zurgindegia
• Ateak • Eskalerak • Leihoak •
Zurgin lanak orokorrean
Leitzako bidea, 35 • Tfnoa: 948 450 211 • DONEZTEBE

Juantxo
San Miguel
Iturgintza • Kalefakzioa • gasa
Tfnoak: 948 450 866 • 626 112 415
Elizagilea, 2 • 31740 DONEZTEBE

BLAS
Liburudenda
948 450 269
Parrokia 1
DONEZTEBE
Eskolako materiala
Egunkariak • Aldizkariak
Goxokiak

GOXUA
GOZOTEGIA
Ongi pasa bestak!!
Nagusia, 10 • DONEZTE • 948 451 471

SALDIAS HARATEGIA
Bertako haragi freskoetan espezializatuak
Etxeko tsistorra
Karrika Nagusia, 21 - ✆ 948 450191 • DONEZTEBE

tel. 948 45 00 60
fax 948 45 00 60
Aparari 3
31140 Donezteb
(Nafarroa)
goldeatallerra@gmail.com
goldea
tallerra s.l.l.

MZL
ZABALA
Kortinetarako sistemak
Bertako zurak eta inportaziokoak
Oihan esplotazioak
Zerrategia eta sekaderoak
Tel.: 948 450 135 • Faxa: 948 450 498
www.maderaszabala.es • DONEZTEBE

PATXI ZAMORANO
PINTURA LANAK OROKORREAN
Bernizatuak eta lakatuak kabinan
Etxebizitzak eta lokalak
Fatxadak
Ongi pasa bestak!
patxi@erenmas.net
948 450 734 / 606 377 424
Faxa: 948 450 255
Leitzako errepidea z/g
DONEZTEBE - SANTESTEBAN

ROBERTO ORDAX
Igeltso-dekorazioa
Sabai desmuntagarriak
Pladurrezko sabaiak
Pinturak orokorrean
Zurgintzako bernizatu eta lakaduak
948 450 351 - 948 450 964 - 619 584 046
DONEZTEBE

P.J.M
Pedro J. Martin
Azienda tratularia
Ongi pasa herriko bestak !!
948 450 042
Martiñenea etxea - DONEZTEBE

CARNICERIA
Esarte
HARATEGIA
Jaime Urrutia, 35 • ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 128
ONGI PASA BESTAK!

Mari Cruz
LENCERIA
Parrokia, 11
DONEZTEBE
948 45 01 12
Jaime Urrutia, 43
ELIZONDO
948 581 301

lilura
ileapaindegia
Rosa Seminario, 17 - DONEZTEBE - Tfnoa: 948 451 961
Gizon eta emakumeendako
Moda-modako kolore eta orrazkera

ARIN
ASEGURUAK
BERA
DONEZTEBE
Ongi pasa bestak!
Parrokia, 21 • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 266 • Faxa: 948 450 617
Eztegara, 26 • BERA
Tfnoa: 948 625 259 • Faxa: 948 625 264

AGUSTIN SAN MIGUEL AZPIROZ
• Ateen automatizazioa
• Ate metalikoak, baskulagarriak, lerragarriak, bi orrikoak
• Baranda eta hesiak
• Egitura metalikoak
• Ate sekzionaletan aukera zabala
• Atalka banatutako Norpa ateak banatu eta montatzen ditugu
Leitzako errep. 68 • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 224 • 629 328 550

ekainak 30 ASTELEHENA
gazte burrunbaren eta txikien eguna

09:00 Diana **CORCOR** txarangarekin.

11:00 **PLATER-TIROA** Ehiztarien elkarteak antolaturik

11:00 Herriko Etxean **UDALETXE TXIKIari** harrera. Segidan alkateak eta zinegotziek altxaferoa botako dute.

11:30 Udalbatza txikia buru duen Meza. Bertan, **ERRALDOIAK, BURUHANDIAK eta TXISTULARIAK** egonen dira. **TRADIZIOZKO DANTZAK** dantzarien eta txistularien eskutik

14:30 **HAURREN BAZKARIA** Udaletxe Txikiaren hautaketan parte hartu dutenentzat

17:00 **HAURRENTZAKO KARS eta PUZGARRIAK** Bearzana pilotalekuan.

20:00 Udaletxe Txikiak boterea itzuliko dio Herriko Etxeari, eta egun horretako oroigarri bezala diplomak emanen zaizkio Udalbatza Txikiari.

20:00 -22:00 Dantzaldia **GAUBELA** orkestaren eskutik
24:30 -03:30

GAZTE BURRUNBA

10:00 **SALSA eta PINTXOAK**

11:00 **GINKANA** gazteen eskutik.

14:30 **GAZTEEN BAZKARIA.** Arratsaldean trikipoteoa.

MAYLIN OSTATUA
ongi pasa bestak!
Bokadiloak
Pintxoak
Plater konbinatuak
Plentzia 15, DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 66

GONZALO FERNANDEZ LAMANA y A.T., S. CV.
Ingeniaritza teknikoa industriala
Bulego teknikoa: proiektuak,obra zuzendaritzak, etab...
Instalazio elektrikoak
Etxeko eta industriako elektrizitatea
Enpresen mantenimendua, etab...

MARTA ileapaindegia
Gizonezko eta emakumeendako
Solarium-a
DONEZTEBE - Merkatarien K. 24 - 948 450 751

DONEZPAN S.L.
okindegia • autozerbitzua
T. 948 450 037 F. 948 450 037• Nagusia, 15 • DONEZTEBE
fernando@donezpan.e.telefonica.net

RUIZ mobleak
Haritz, gaztain, eta pinu egurrez egindako mobleak
Dekorazio artikuluak
Merkatarien karrika, 16 · Tfnoa: 948 450110 · DONEZTEBE

CTV
ALBAITARITA ZENTRU TEKNIKOA
ONGI PASA BESTAK!

Kilenium
kider
Tarima eta parket Flotagarriak
Tel: 948 451560 Faxa: 948 456148
www.industriaskider.es DONEZTEBE

DONEZTEBEKO Gasolindegia

10, Gure urteurrena ospatzeko, denda berritu dugu:

Eskaintza zabalagoa (ogia, janariak...)

Eta nola ez, gure betiko zerbitzuak:

- **Etxez-etxeko gasoil-zerbitzua**
- **Auto-garbitzaile automatikoa**
- **Presio bidezko garbiketa**
- **Autoaren barneko garbiketa**

Leitza E., 49 • DONEZTEBE • T. 948 451 679 F. 948 450 857

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT

- Txapa, Mekanika eta elektrizitatea
- Kotxe berriak eta bigarren eskukoak
- Kotxe ia berrietan eskaintza zabala
  (6-12hilabeteko kotxeak): Clio. Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace
- ISO 9001 eta ISO 14001 duen tailerra

DONEZTEBE • Leitzako errep.
Tfnoa: 948 450 282

MIGELENA anaiak

Erlojudenda • Bitxidenda • Sukalde eta bainuko altzariak • Etxetresnak
Sukaldeko tresneria • Zerbitzu teknikoa

Ameztia 1 eta 5 • DONEZTEBE

T. 948 450 126 • 948 450 925 M.: 677 525 292 • 689 004 841

uztailak **1** **ASTEARTEA**

09:00 Diana **CORCOR** txarangarekin.
11:00 **GORRITI** eta bere animalien ekitaldia.
11:00 **MUS TXAPELKETA**
14:00 **HERRI BAZKARIA**
20:00 -23:00 **MODESTO** eta bere akordeoia.
22:00 **TXISTORRADA** Santa Luzia plazan.
23:00 **GAIXOA NI** CORCOR txarangarekin.



APEZTEGIA BERRIA

BURDINDEGIA · FERRETERIA

DONEZTEBE · Elizagibela, 1
948 450 994

LORATEGIRAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

ALTZATEKO BESTAK 08

EKAINAK 13,14 TA 15 BERA

ORTZILIN

20:30
ALTXAFEROA

20:45
PINTXO POTEO

22:00
KONTZERTUAK
OPARIAK
EDARI BESTAK

LARUNTIN

12:00
KALEJIRA

14:00
AUZO BAZKARIA-ZIKIRO

19:30
DANTZAK-PLAZAN

23:30 SUZKOZEZENA

23:00/03:00
KONTZERTUAK ETA
DJ ZURTAIA
ALTZATEKO PLAZAN

9:30
HAUR JOKOAK
CAZA Y PESCA
ELKARTEAN

10:00
TIRO AL PLATO

11:00
MEZA

13:00
TXISTURALIAK

17:00
ZOZKETA ZENBAKIA

21:00
AUZO AFARIA

IGANDIN

BESTA HAUEK IZADI TXARANGAREKIN

ESKERRAK

BERAKO UDALA. BERAKO SUHILTZAILEAK. GURE TXOKOA ETA CAZA Y PESCA ELKARTEEI. ALTZATEKO DENDAK. OSTATUAK ETB... ETA BESTA HAUEK AINTZINERA ERAMATEN LAGUNDU DIGUTEN GUZTIEI.ESKERRIK ASKO

BERA

Agerrako bizilagunek ez dute brea laberik nahi etxe atarian

Maiatzaren 31n agerraldia egin zuten proiektuari buruzko kezka azalduz

ttipi-ttapa

Brea labea ez etxe atarian lelopean agerraldia egin zuten Agerra auzoko bizilagunek maiatzaren 31n, Alkaiagako harrobian egin gogo den brea labearen kontra. Agerra eta Alkaiagako bizilagunak haserre daude, ez zaielako lekurik egokiena iruditzen brea labe bat jartzeko, lehenbiziko etxea 100 metrora, Agerra auzoa 400 metrora eta Berako herri osoa 1,5 kilometroren barrenean duela. Bertzeak bertze, Kantabrian eta Asturiasen epaitegiek halako labeak debekatu dituztela aipatu zuten.

Lehen ere Alkaiagako harrobian probisionalki gisako planta izan zela gogoratu zuten eta *«berriz ere interes ekonomikoak pertsonen osasunaren gainetik»* jarri diren galdetu zuten. Gainera, halako jarduerak etxeetatik 2.000 metro baino guttiagora ezin direla paratu erran zuten. Igantziko Bentatan ere plantaren kontrako iritzia eman zuen Ingurumenak herrigunetik hurbil izateagatik.

Alkaiagako zulo horren azpian erreka doa, eta erreka hori ez da geroztik desagertu. Gainera, euria egiten duenean, ura pilatzen da: *«Brea planta egonen den zuloan biltzen den ur zikin hori nora botako dute? Ondoko errekatxo batera eta handik zuzenean Bidasora, Izokin haztegira»*. Bide berderako ere kaltegarria dela uste dute, kamioiak bertatik pasatu beharko dutelako.

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Maiatzaren 31n agerraldia egin zuten Agerrako hainbat bizilagunek.

Lesakako Udalaren eta orokorrean administrazioaren jarrerarekin ere haserre daude. *«Hau bera Lesakako landazelaietan jarriko balute, zer?»*. Planta bat tramitatu eta bertze bat desberdina eta handiagoa ezarri asmo dutela ere salatu zuten: *«Planta berria bada, espediente eta tramitazio berria eskatzen du. Non dago Lesakako Udala?»*.

Kirol Eguna larunbatean

Kiroldegiak eta Kirol Batzordeak antolatuta larunbat honetan, hilak 14, eginen da Kirol Egunaren IV. edizioa. Goizetik hasitan izanen dira ekitaldiak: 10:00etatik 10:30era Nahia Artiedarekin Funky hi-hop erakustaldia izanen da; 10:30etik 11:30era Ana Larretxea eta Leire Bereaurekin aerobic eta aerobic latinoa; 11:30etik 12:30era rokodromoan erakustaldia izanen da, eta Loro eta Zubietari plaka eskainiko zaie. Ondotik, Maite Mitxelena eta Borja Senosianekin Ciclo Indoor saioa eginen da. Bazkaria izanen da gero, eta 16:30etik aitzinera Genaro Zelaietaren omenez futbol triangularra jokatuko da Matzada futbol-zelaian. Realeko eta Osasunako beteranoez gain Gure Txokoako jokalariak arituko dira. Aipatu, aerobic eta ciclo indoor saioak nahi duten guztientzat zabalik izanen direla.

Altzateko bestak

Ortziral honetan, ekainak 13, 20:30ean botako den altxaferoarekin hasiko dira aurtengo Altzateko bestak. Igandera bitarte hainbat ekitaldi izanen dira haur, gazte zein helduentzat: kontzertuak, dantzak, suzko zezenak, kalejirak, plater-tiroketa, zozketak, bazkariak zein afariak... Xehetasun gehiago aitzinean.

PERTSONAIA

Ixabel IRATZOKI

Aspaceren omenaldia jaso du eginiko lanagatik

Maiatzaren 23an Bortzirietako Aspaceko delegazioa inauguratu zen. Ekitaldi aberatsa izan zen, egitarau zabala prestatua baitzuten aitzinetik. Musika eskolako ikasleek, Berako abesbatzak, Ertz kolektiboak eta zonaldeko hainbat artistak parte hartu zuten. Halere, ekitaldiko unerik hunkigarriena omenaldian izan zen. Aspaceko bi kidek, Susana Fragosok eta Begoña Igoak, lore-sorta eskaini zioten Ixabel Iratzokiri. Urtetan Uxaneko kideak beraien etxeetatik zentrora ekarri eta zentrotik etxeetara eramateko ardura izan du Ixabelek eta orain, erretiroa hartu berritan, Uxaneko ikasleen oroigarria hartu zuen. Emozioz beterik jaso zuen omenaldia eta hurbildutako jendearen txalo zaparrada.

LESAKA

Zentro komertzialik ez egitea eskatuko du sortu berri den Plataformak

Landazelaietako proiektuari buruzko informazio zuzena ere galdegingo dio Herriko Etxeari

Aitor AROTZENA

Landazelaietan zentro komertzialik ez egitea eta Herriko Etxeari eskura duen informazio osoa eman dezan eskatuz herri plataforma osatu zen maiatzaren 30ean. Lesakako Zerbitzuen Elkartearen ekimena izan da plataforma hau osatzea. Maiatzaren 28an egindako agerraldian, gai honen inguruan herritarrak mugitzeko premia azpimarratu zuten. Merkatariek bere jarrera berriro planteatzea eskatu diote Udalari eta tertziarioa etxebizitza azpietan ezartzea.

Honela, dendari, ostalari eta bertzelako komertzianteekin batera, hainbat herritar azaldu zen Kasinora. Baztan, Doneztebe eta Berako merkatarien ordezkariak ere izan ziren, eskualde osoari eraginen bailioke Landazelaietan 3.000 metro koadroko zentro komertziala jartzeak.

Plataformaren eskaria garbia da: zentro komertzialik ez egitea eta dagoen informazioa plataformaren eta orokorrean, herritarren eskura jartzea.Plataforman lan egin nahi duenak, batzordea osatuz edo bertzelako lanak eginez, Jabier Oronoz, Zerbitzuen Elkarteko idazkariarengana jo dezake.

PNVk PLENOA EGITEA ESKATU DU

PNVko udal taldearen ustez, berriz, herriko arazo nagusia etxebizitza eskasia da eta horrek soluzioa behar du: *«Ezin da herriko sektore baten interesak herritarren interes orokorren gainetik paratu. Hori gertatuko balitz, norbaitek dimisioa eman beharko luke»*.

Oninek egindako proposamenak ez ditu begi onez ikusten PNVk: *«Etxebizitza libreak eta babes ofizialekoak nahastea hagitz zaila da teknikoki eta juririkoki bideraezina»*. Gainera, komertzioa etxebizitzen beheitiko aldean jartzearen guziz kontra dago PNV, *«horrek etxebizitzei altuera bat gehiago ematea suposatzen badu. Hori barkaezina litzateke Lesakan»*. Proiektuaz erabakitzeko plenoa lehenbailehen egitea nahi du PNVk.

PNVren idatziari erantzunez, EAk ere berea karrikaratu du. EAren ustez, urte hasieran onartu den Uraren Legeak aunitz baldintzatzen du proiektua eta lehen baino hagitzez eremu estuagoan egin beharko lirateke 340 etxebizitzak. Horregatik, lehendik onartu zen 230 etxebizitzen planera itzultzea proposatu du, altuera guttiagoko pisuekin eta tarte handiagoekin. Komertzioak dibertsifikatzea ere pro-

ARGAZKIA: A.A.

Zerbitzuen Elkarteak zentro komertzialaren kontrako jarrera azaldu du.

Izaskun Obesoren kartelak iragarriko ditu aurten Sanferminak

Programako azal lehiaketa ere Izaskunek berak irabazi du

A.A.

Izaskun Obeso Inzak egindako kartelak iragarriko ditu Sanferminak. 15 lanen artean Izaskunena izan da garaile eta kartela argitaratua ikusteaz gain, 500 euroko saria jasoko du.

Gainera, programaren azaleko irudia ere Izaskunek marraztutakoa izanen da, berak irabazi baitu azal lehiaketa ere, aurkeztutako 19 lanen artean. Honen truke ere 500 euro jasoko ditu.

Programaren gibeleko azala diseinatzeko herriko ikasleei zuzendutako lehiaketara 100 bat lan aurkeztu ziren. Lehenbiziko saria (300 euroko balea, eskola materiala erosteko) Maite Odriozola Muxikarentzat izan da. Maitek berak eta Ane Lanz Aierzak aipamen berezia lortu dute eta bakoitzak 100 euroko balea eskuratuko du.



UTZITAKO ARGAZKIAK.

Ezkerrean, Sanferminak iragarriko dituen kartela eta eskuinean, programaren azalean ikusiko dugun irudia. Biak Izaskun Obesok eginak dira.

1.199,00 €

SAMSUNG NP-R700A003

Pantaila: 17” WXGA Gloss
Prozesadorea: Intel® Core™ 2 Duo T9300
Disko gogorra: 250 GB SATA / **Memoria:** 2GB DDR2
T. Grafikoa: NVIDIA Gforce 8600GT 256Mb
DVD: SuperMulti LightScribe
Komunikazioak: WiFi 802.11 bgx, Giga LAN, Modem, Bluetooth V2.0+EDR
E.S.: Windows Vista® Home Premium
Webcam: 1,3 Megapixels
Bertzeak: HDMI

899 €

MSI M677-034 CRYSTAL

Pantaila: 15” WXGA (ACV Display)
Prozesadorea: AMD Turion 64 X2 TL52
Disko gogorra: 120 GB SATA / **Memoria:** 1GB DDR2
T. Grafikoa: nVIDIA Gforce 7600GT 256Mb
DVD: SuperMulti
Komunikazioak: WiFi 802.11 bgx, Giga LAN
E.S.: Windows Vista® Home Premium
Webcam: 1,3 Megapixels
Bertzeak: Zenbakizko teklatu independentea

850 €

VAIO NR21Z/S

Pantaila: 15.4” WXGA X-black
Prozesadorea: Intel Core 2 Duo T8100
Disko gogorra: 250 GB SATA
Memoria: 3GB DDR2
T. Grafikoa: nVIDIA® Gforce® 8400GT
DVD: DVD±RW/±R DL/RAM
Komunikazioak: 802.11 a/b/g/n, modem
E.S.: Windows Vista® Home Premium
Bertzeak: 4 USB 2.0 Hi-Speed

599 €

TOSHIBA Satellite L300-10Q

Pantaila: TruBrite WXGA TFT 15,4”
Prozesadorea: Intel® Pentium® Dual-Core T2370 (1.73 GHz, 533MHz FSB, 1MB L2), chipset 960 GL
Disko / **Memoria:** 160GB, Serial ATA, 5.400 rpm.
T. Grafikoa: Intel® X3100 hasta 358 MB
DVD: DVD±R/RW/RAM/±R9
Komunikazioak: LAN Ethernet 10/100, Modem Internazionala V.92, Wireless LAN 802.11b/g
E.S.: Windows Vista® Home Premium

BERA INFORMATICA S.L.
Kanttonberri, 3 behea
31780 Bera - Nafarroa
Tel.: 948 630 799 / 948 630 132
Faxa: 948 630 132
info@berainformatica.com

549 €

HP 6720S KE056ET

Pantaila: 15.4” pulgadatakoa
Prozesadorea: Intel Core 2 Duo T5470
Disko gogorra: 160 GB SATA
Memoria: 2GB DDR2
T. Grafikoa: Intel GMA X3100 358Mb-raino
DVD: SuperMulti kapa bikoitza Lightscribe
Komunikazioak: Wifi 802.11a/b/g, 10/100 LAN, Modem
E.S.: Windows Vista® Home Premium

425 €

acer EX 5220-101G08Mi

Pantaila: 15.4” WXGA (1280x800)
Prozesadorea: Celeron M540
Disko gogorra: 80 GB SATA / **Memoria:** 1GB DDR2
T. Grafikoa: Intel Graphics Acelerator
DVD: SuperMulti kapa bikoitza
Komunikazioak: 802.11a/b/g, Modem
E.S.: Windows Vista® Home Basic
Txartel irakurgailua: 5 en 1

549 €

acer EX 5620G-1A2G16Mi

Pantaila: 15.4” WXGA Cristal Brite
Prozesadorea: Intel Pentium Dual Core T5250
Disko gogorra: 160 GB / **Memoria:** 2GB DDR2
T. Grafikoa: ATI Mobility Radeon X2400 XT
DVD: SuperMulti
Komunikazioak: 802.11a/b/g, LAN, Modem
E.S.: Windows Vista® Home Premium
Txartel irakurgailua: 5 en 1
Webcam: CristalEye

799 €

acer TM 5720G-602G25Mi

Pantaila: 15.4” WXGA Cristal Brite
Prozesadorea: Intel Centrino Core 2 Duo T7500
Disko gogorra: 250 GB / **Memoria:** 2GB DDR2
T. Grafikoa: ATI Radeon X2600 512Mb
DVD: SuperMulti
Komunikazioak: 802.11a/b/g, LAN, Modem, Bluetooth
E.S.: Windows Vista® Home Premium
Txartel irakurgailua: 5 en 1 **Webcam:** CristalEye

Eraman itzazu Word, Excel, PowerPoint eta antibirusa **149€**tan

ESKUKO ORDENAGAILUENTZAT MALETA ETA OSAGARRIAK

29,00 €

NGS STELLA

Diseinu ausarta duen maletatxoa, emakume exekutiboan inspiratua. Aukeran 3 kolore dituzu: **gorria, urdina eta marroia.** Kanpokaldean sakelarekin dokumentu, txartel, boligrafo, eta abarrentzat. Badu galtzarbe-uhala errazago eramateko, baita ateratzen ahal den estutxea ere.

NGS LEADER KIT

49,00 €

Eskuko ordenagailuaretzat
“Organizer” maleta: Gehienez 15.4” ordenailuarentzat.
Webcam Bullseye:
Laneko konferentziak egiteko aproposa, baita lagunekin eta familiarekin erabiltzeko ere. USB konexioarekin.
“MS105” Aurikularra

39,90 €

NGS MASTER KIT

Eskuko ordenagailuaretzat
“Organizer” maleta: Gehienez 15.4” ordenagailua eramateko.
Snake Flake xagua: 800dpi-ko sentsore optikoarekin, bi botoiduna eta programatzen ahal den gurpiltxoarekin.

dx 2400 BERRIA

Ekainaren 15a bitarte
>> BERA INFORMATICAn

PC HP Compaq dx 2400

+ TFT 19"ko monitore panoramikoa
+ HP Officejet PRO L7590 multifuntzionala, Faxa eta dokumentuen elikagailuarekin

635€ BEZ barne

HP Color LaserJet BERRIAK

LaserJet Color, munduko inprimagailurik **ttikienak**. Zure mahairako ezin egokiagoak

>> HP Color LaserJet CP1215

- Koloreko inpresioa 8 orri-minutuko abiaduran eta z/b 12 o.m.
- HP ImageRet 2400ko inprimatze-kalitatea.
- USB 2.0 konexioa, abiadura handikoa
- 150 orriko edukiera duen sarrera ontzia.
- 220 mg.arteko lodiera duten paperak onartzen ditu.
- Bakarrik 4 kontsumible erabiltzen ditu.

199€ BEZ barne

> HP Color LaserJet CP1515n

- Koloreko inpresioa 8 orri-minutuko abiaduran eta z/b 12 o.m.
- HP ImageRet 3600ko inprimatze-kalitatea.
- Abiadura handiko USB 2.0 konexioa eta Ethernet sareari lotzeko konexioa.
- LCD pantaila inprimagailuaren egoeraren adierazlearekin.
- 150 orriko edukiera duen sarrera ontzia + lehentasuneko sarrera ontzia.
- HP PCL 6 lengoaiak, Postscript 3 mailako emulazioa.
- 220mg.arteko lodiera duten paperak onartzen ditu.
- Bakarrik 4 kontsumible erabiltzen ditu.

249€ BEZ barne

Informazio gehiago
948 630 132ra deituz edo
info@berainformatica.com

BERA INFORMATICA S.L.

Kanttonberri, 03 Behea
31780 BERA - Nafarroa

ETXALAR

Igande honetan eginen da aurtengo Haurren Eguna

Hainbat ekitaldi izanen dira: erakusketak, antzerkia, ipuinak...

Joseba eta Nerea

Igande honetan, ekainak 15, Landagain eskolako ikasleek Haurren Eguna ospatuko dute. Goizean goizetik hasita ekitaldiak izanen dira plazan. Aurtengo kurtsoan egindako lanak ikusgai paratuko dituzte; eskulanak, marrazkiak, argazkiak ... XX. Ipuin topaketako ipuinak irakurgai egonen dira eta eguerdi partean zenbait ipuin irakurri eta parte-hartzaile bakoitzak dagokion ipuina jasoko du. Ipuin topaketaren ondotik, herri bazkaria izanen dute haurrek, Guraso Elkarteak antolatuta.

Arratsaldean, berriz, Kuko, Truko eta Bolenwader palaizoen *Taulara* ikuskizuna izanen da,15:30ean plazan. Eguna bukatzeko, 17:00ak aldera, Guraso Elkarteak antolatutako sorpresa izanen da. Momentuz ez digute deus aitzineratu.

Gasna eta Artisau Feria arrakastatsua

«Zein da sorpresa? Zuk badakizu zerbait? Zerbait aditu dut, baina…». Goizean goizetik jendea erreparoan zegoen. Aurtengo Gasna Feria Eguneko sorpresa zein zen jakin nahi zuten denek. Eta ez zuten aunitz esperatu behar izan, Zubietako joaldunak goizean goiz agertu baitziren plaza bazterrera. Eskulangile eta artisau batzuen lanarekin batera, eurena izan zen atentzio gehien erakarri zuen ekitaldia. Herri osoan barna ibili ziren joareak astitzen, eta plazan erakustaldi ttiki bat eskaini zuten. Jendeak txalo artean hartu zituen, eta haurrak argazkiak ateratzen aritu ziren etengabe. Sorpresa ederra izan zen.

Jende parrasta ibili zen egun osoan, eta antolatzaileen erranetan, hagitz gustura gelditu dira Gasna Feriaren XVI. edizioak izandako martxarekin. Gasna lehiaketan 17 gasnak parte hartu zuten, haurrentzako tailerrak izan ziren goiz osoan, inguruko herri gehienetatik jende franko etorri zen, talo multzo bat saldu zen, eta urtero bezala, herriko emakumeek eskulan-erakusketa ederra paratu zuten Kultur Etxean. Ez zuen deusek hutsik egin. Trikitilariek saio bixi eta alaia eskaini zuten erdi euripean. Eguerdian 120 lagun inguru bildu ziren frontoiko herri bazkarian, eta arratsaldean, Andre Mari Dantza Taldeko dantzari nagusiek aho zabalik utzi zituzten plazan bildutako guztiak.

ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

Goiko argazkia Gasna Lehiaketan ateratakoa da, Txomin Arranbide eta Mixel Aire epaimahaikideekin batera. Lehiaketako irabazlea Baztan Gasnategiko Begoña Etxandi izan zen. Bigarrena Berako Sorroko Almandoz, eta hirugarrena Urdazubiko Etxelekua gasnategiko Anamari Bengoetxea. Etxalartarren artean Intzeko Bordako Josetxo Ariztegi eta Basateko Bordako Isidro Ariztegiren gasnak izan ziren hoberenak. Beheko argazkian, eguneko sorpresa: Zubietako joaldunak.

ARANTZA

Ekainaren 24an Zahar Txokoko bazkideek besta eginen dute

Meza, bazkaria, bertsolariak eta trikitilariak izanen dira egitarauan

Nerea ALTZURI

Duela urte mordoxka sortu zen Zahar Txoko elkartea. Jubilatu eta pentsionisten talde honek egun 137 bazkide ditu. Azken urte honetan, 35 lagun bazkide egin dira eta gero eta lagun gehiago animatzen ari direla ikusiz, San Juan Egunerako, hilak 24, asteartea, ospakizun berexia antolatu dute. 12:00etan meza izanen da San Juan Xarren. Igantziko txoko polit hau aukeratu dute urtero bezala egun honetan elizkizunak han egiten baitira. Bertan gainera Zahar Txokoko lehendakaria eta bertsolaria den Xalbador Madariaga eta Julen Zelaieta Nafarroako bertsolari txapelduna bertsotan ariko dira.

13:30ean bazkaria izanen da Zahar Txokoko egoitzan. Bazkalondoan, Madariaga eta Zelaietaren bertsoez gain, Itxaro Etxague eta Lidia Indakoetxea trikitilari eta panderojoleak arratsaldea alaituko dute.

Zerrakuren bilketa

Udaletxeko mendiko zinegotziak zerrakurak uztailaren 15a baino lehen biltzeko oharra zabaldu du. Izan ere, dirulaguntza lortzeko epea irailaren lehenean akautzen da. Irailera arte astia baldin bada ere, zerrakurak biltzeko lana aitzinetik egin beharra dago. Norberak epearen barrenean, hau da, uztailaren erdialdera bitartean ez badu egiten, udaletxeko langileak edo mendiko lanak egiten dituen enpresak lan hori bere gain hartuko du.

Bataioa eta komunioak

Herriko parrokian maiatza eta azaroa bataioak egiteko hilabeteak ditugu. Hala, maiatzaren 3an, Ainize San Juan Tabernaren bataioa izan zen. Maiatzaren 25ean, berriz, Bestaberri Egunean Zakuteneako Andoni Taberna, Sagar Goxoko Kristina Jimenez eta Landondoko Daniel Ramosen komunioak izan ziren.



ARGAZKIA: AMAIA APEZETXEA

Uda-udaberri honetako ile orrazkeren moda desfilea

Amaia Apezetxea ile-apaintzaileak antolatuta, maiatzaren 24an moda desfilea egin zen Aterpen. Uda-udaberri honetako modan oinarritutako orrazkera, mozketa eta koloreak erakusgai paratu zituen.

FLASH

2007ko euriteen kalteak moldatuak

Maiatzean udaletxetik berri papera banatu da etxe guzietara. Udal informazioaren txostenean zenbait gai jorratu dira, eta batzuk ondokoak. Aski euri-hilabetea izan dugu pasatutakoa, baina ez iazkoa bezainbertzekoa. Joan den urtean, eurite izugarriak izan ziren eta gure inguruetan kalteak sortu zituzten. Hobetze lanak akautuak dira eta Mikel Ubiria eta Basartea enpresek bideratu dituzte. Nafarroako Gobernutik teknikari batek lanak ikuskatu ondoren, ontzat eman ditu. Gastua 97.145,77 eurokoa izan da eta Gobernutik jasotakoa 87.238,75 eurokoa izan da. Egindako lanak aitzineko Udalak aurkeztutako proiektuan eskatutakoak dira, salbuespen batzuekin.

PISTETAKO LANAK

Adostutako lanak akautuak dira, Eguzkialdeko biondena ezik, hau agudo eginen dela dio udal txostenak. Hormigonatze lanak Azkilarreko goiko pistan, Haizegu etxera, Ximonenborda baserrira eta Meakan, Jabierren bordarako pistan egin dira. Gastua 103.387 eurokoa izan da eta Gobernuak %60ko dirulaguntza eman du (62.032,20 euro) Gelditzen dena, egindako bileretan adostu bezala banatu da Udalaren eta baserritarren artean.

WWW.ARANTZA.EU

Udaleko web orriak 7.700 bisitari izan ditu azken 10 hilabeotan. Internetaren aroan gaudela ikusita, gure herriak ere ikusmira sortzen duela agerian gelditu da.

SUNBILLA

Uztailean eta abuztuan ludoteka zerbitzua eskainiko da astegunetan goizero

Izaro Altzuri eta Natalia Arretxea izanen dira haurren hezitzaileak

Jaione OTXANDORENA

Ekainaren 20an aurtengo ikasturteari amaiera emanen diote herriko eskolako ikasleek eta hor hasiko da guraso aunitzen arazoa. Jakina da gurasoek ez dugula gure umeek bezainbertze opor egun izaten eta udako hilabeteetan irtenbide bat bilatu behar izaten dugu. Aurtengoan uztaila eta abuzturako ludoteka zerbitzua jarriko da. Herriko bi neska gaztek, Izaro Altzuri eta Natalia Arretxeak, Udalari udako ludoteka jartzeko proposamena egin zioten, eta hau aldi berean, Guraso Elkartearekin harremanetan jarri zen. Herriko gurasoen artean inkesta bat egin ondoren proiektuarekin aitzinera jarraitzea erabaki zen.

Ludoteka zerbitzua astelehenetik ortziralera izanen da, 9:00etatik 13:00ak arte eta hilabeteko 60 euro gostako da Guraso Elkarteko bazkide direnentzat eta 65 euro bazkide ez direnentzat.

Abuztuko San Tiburtzio bestetako astean ez da ludoteka zerbitzurik izanen eta horren ordez irraileko lehen astean izanen da. Dagoeneko izen emateak eginak daude baina oraindik ere norbait interesatua balego, ekainaren 15a baino lehen Guraso Elkarteari jakinarazi beharko dio.

Istripua

Joan den ekainaren 2an herrira sartzeko sarbidean bertze istripu bat izan zen. Zorionez ez zen zauritu larririk izan baina autoek kalte dexente jasan zituzten.

Udal igerilekuko tarifak

Aurreko urteetan bezala, herriko igerilekuaren denboraldia ekainaren 15etik irailaren 15a arte izanen da. Ondoko taulan aurtengo prezioak zein diren ja-

ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA

Agorreta Musika Eskolakoen kontzertua

Doneztebeko Agorreta Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskaini zuten Ulibeltzak Elkartean maiatzaren 28an. 17 gaztek hartu zuten parte eta tartean bi herritarrek, Ainara Antuña eta Elvira Fuentesek. Biek pianoa jo zuten eta ederki gainera. Ainarak Ken Zazpiren *Ilargia* abesti ezaguna jo zuen, eta Elvirak Campen *Capvespre.* 70 bat pertsona hurbildu ziren kontzertua entzutera, gehienak haurrak. Nork daki, agian kontzertua entzun eta ikusi ondoren bati baino gehiagori musika tresnaren bat jotzen ikasteko gogoa piztuko zitzaion!

2008KO UDAKO DENBORALDIKO PREZIOAK UDAL IGERILEKUAN

	HIRUHILABETEKOA	HILABETEKOA	EGUNEKOA
0-6 urteak	Doan	Doan	Doan
6-12 urteak	19,5 euro	15 euro	2,5 euro
12-18 urteak	26 euro	22 euro	3 euro
18 urtetik goiti	38,5 euro	27,5 euro	4 euro

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...
Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

MALERREKA

Nafarroako Odol Emaileen XXXI. Eguna eginen da igande honetan

Egun guztirako ekitaldiak prestatu ditu Adona Nafarroako Odol Emaileen ElkarteaK

ttipi-ttapa

Adona Nafarroako Odol Emaileen Elkarteak antolatuta Odol Emaileen XXXI. Eguna eginen da igande honetan Donezteben. Udalaren, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Aretxea jatorri-deituraren laguntza izanen du ekimenak. Goizetik ekitaldi ugari izanen dira.

10:15ean Udaletxean Donezteboko txistulariak eta Deikazteluko Bizkarra musika taldeak ongi etorri eginen diete odo-emaileei.

10:30ean elizan Meza. Francisco Perez Gonzalez Iruñeko Artzapezpikua egonen da, eta parrokiako abesbatzak kantatuko du.

11:30ean elizan Herriko odol-emaileei urrezko eta zilarrezko oroigarriak emanen zaizkie. Batzar Orokor Arrunt eta Berezia ere eginen dira.

12:30ean eliz atarian Banderaren dantza eta Zubietako joaldunak.

13:00etan Intzakardin Aretxe errearen dastaketa, Nafarroako Aretxea AGBak eskainia.

14:30ean kiroldegian Bazkaria.

17:00etan pilotalekuan Erremonte erakustaldia, Donezteboko Erremonte Eskolaren eskutik. Aizkora apostua. Jalisko Bandekin dantzaldia.

19:00etan autobusak

Doneztebe, Bera, Lesaka eta Elgorriaga elkarlanean

Bertizko Partzuergo Turistikoaren barne ez dauden herrietako udalek lankidetza hitzarmena sinatu dute elkarlanean turismoa indartzeko asmoz. Bera, Doneztebe, Elgorriaga eta Lesakako Udalak dira eta orain dik elkarrekin eginen dituzten proiektu zehatzen berririk eman ez badute ere, dirulaguntza eskaerak elkarrekin eginen dituzte.

Langile elgorriaga hil da lan istripuan

37 urteko Elgorriagako langile bat hil zen maiatzaren 27an Donezteben, eraikuntzako obra batean lanean ari zela. Goizean 10:19 aldera gertatu ezbeharra, Jose Mari Jorajuriak gidatzen zuen dunperra irauli eta langilea azpian gelditu zenean. Jorajuria Iturengo Izarra eskabazio enpresarentzat ari zen lanean, Donezteboetik Elgorriagarako bide ondoan eraikitzen ari ziren etxebizitza batean. Foruzaingoaren lehen ikerketen arabera, ezponda berdintzen ari zen Elgorriagako langilea. Istripua gertatu zenean, lankide batek SOS Navarrara deitu zuen. Medikua eta erizaina eta Oronoz-Mugairiko suhiltzaileak lanistripuaren tokira joan ziren, baina langilea ordurako hilik zegoen.

Langilearen heriotza salatzeko eta dolumina adierazteko kontzentrazioa egin zuen LAB sindikatuak Donezteben, Enplegu Bulegoaren aitzinean eta salatu zuenez, *«enpresentzat prebentzioa egitea, epe murritzera etekinik ematen ez duen gastua da eta horregatik, informerik merkeenak erosten dituzte»*. ELAk ere protesta gisako bilkura egin zuen istripua salatzeko. UGT sindikatuak, bere aldetik, langilearen heriotza salatu zuen eta bere elkartasuna adierazi zion fa-

ARGAZKIA: ZARBO

Telletxea, Mindegia, Meoki eta Indabere omenduak

Eguraldiak ez zuen lagundu, baina ez zen traba izan Errekaren Eguna ospatzeko. Egun guztian kirol ekitaldiak izan ziren eta arratsean afaria eta dantzaldia. Afalondoan, iaz Noelia Ariztiarekin egin bezala, aurten elite mailan ari diren hiru eskubaloi jokalari omendu zituzten: Niko Mindegia, Unai Meoki eta Iñaki Indabere. Eguneko laugarren omendua Juan Telletxea izan zen, Errekako lehendakaria. Egindako lana eskertu nahi izan zion Elkarteak.

idasoa

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA

Telekomunikabideetako elektronika

Zurgintza eta altzarigintza

Elektronika industriala mikroprogramablea

Eraikuntza eta obra zibila

Proiektu mekanikoen garapena

Zure etorkizuna, gure

Etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. ***BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutua****k hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.*

HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza-zikloak eskaintzen dira industriaren sektoreko lanbide-arloan: Mekanizazio Ekoizpena, Elektrizitatea-Elektronika, Zurgintza eta Altzarigintza, Eraikuntza eta Obra Zibila. Hizkuntza ereduak: A (gaztelania), D (euskera), B (mistoa) eta hainbat kasutan eleanitza (moduluak ingelesez). Hiru modalitate daude:

Erregimen arrunta

Bigarren Hezkuntzako (DBH) edo batxilergoko ikasketak bukatu dituzten ikasleen ohiko bidea da, eta goizez eta bi kurtsotan Erdi eta Goi Mailako Zikloa egin nahi dutenena.

Eskaintza Partziala

Bide honek Zikloetako moduluak era independiente batez ziurtatzeko aukera ematen du. Ikaslegoaren ordutegien beharretara egokitzen da, hartara, lana eta bertzelako beharrak ikasketarekin tartekatu ahal izanen ditu ikasleak hiru urteko epean dagokion titulazioa eskuratuz.

Ikasi eta Lan
(Txandakako prestakuntza)

Aukera honen bitartez Goi Mailako Lanbide-Heziketako ikasketak txandakako sistemarekin egin daitezke, enpresa batean ordaindutako lana (sektoreko hitzarmenaren arabera) eta ikastetxeko ikasketak aldi berean eginez. Aukera honek ikasleei eta enpresei abantailak eskaintzen dizkie, eta gainera berezia da hiru ikasturtetan egin daitekeelako eta ikasleek ez dutelako Lantokietan Prestakuntzako modulurik egin beharrik.

‘Ikasi eta Lan’ programa berriak aukera ematen dio ikasleari aldiberean egiteko ikasketak eta ordaindutako lana enpresa batean (sektoren dagoen lan-hitzarmenaren arabera)

Mekanika

Elektrizitatea

Elizatxo,10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 666 010
Faxa: 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org

re erronka

PREINSKRIPZIO EPEA
Ekainaren 2tik 13ra
biak barne

2008 / 2009 IKASTURTEA
Ziklo-eskaintza osoa goizez

Hizkuntza Eskaintza A eta D
Erdaraz eta euskaraz

GOI MAILA

- **MEKANIZAZIO EKOIZPENA** (Eleanitza)
- **PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA**
- **AROTZERIAKO ETA ALTZARIGINTZAKO PRODUKTUEN GARAPENA**
- **HIRIGINTZA PROIEKTUEN GARAPENA ETA TOPOGRAFIA-ERAIKETA**
- **INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK**
- **INSTALAZIO ELEKTRONIKOEN GARAPENA**
- **TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK**

ERDI MAILA

- **MEKANIZAZIOA**
- **NEURRIRA EGINDAKO AROTZERIAREN ETA ALTZARIEN FABRIKAZIO ETA INSTALAZIOA**
- **EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK**
- **KONTSUMORAKO EKIPO ELEKTRONIKOAK**

MATRIKULA EPEA
Ekainaren 30tik uztailaren 4ra
biak barne

GAITASUNEN AINTZAT HARTZEA

Lan esperientziaren homologazioa

Autonomia Erkidegoko ikastetxeen artean, Bidasoa Institutuak lan esperientziaren edo irakaskuntza ez-formalen bidez, ikasleek lortu dituzten gaitasunak aintzat hartuak izan daitezen laguntzen du, eta baldintzak betez gero, Teknikari edo Goi Mailako Teknikariaren titulua lortzeko aukera eskaintzen du.

LAN-MUNDURATZEA, EKINTZAILETZA ETA AUTOENPLEGUA

Lan-Poltsa

Espezializazioa edozein dela ere, ikasketak bukatzen dituzten ikasleen %90a baino gehiagoren enplegua ziurtatzen da. Gainera, ikastetxeak jarraipena ere egiten du eta enpresen eskaeraren arabera egituratutako lan-poltsaren bitartez gure ikasleek lanpostu berriak eskuratzeko edo beren lan egoera hobetzeko aukera dute.

Urratsbat programa

Ekintzailetzaren eta autopenpleguaren kultura sustatzeko esfortzu berezia egiten du Institutuak. Hezkuntza Sailburuordetzaren Urratsbat programari esker, Bidasoa Institutuak ikasketak bukatu dituzten ikasleei enpresa propioak sortzen laguntzen die. 2001ean ekimen honi hasiera eman zitzaionetik hamaika enpresa baino gehiago eratu dituzte ikastetxeko ikasleek.

NAZIOARTEKO TRUKAKETAK

Leonardo da Vinci (Erdi Mailakoentzat) eta *Erasmus* (Goi Mailakoentzat) programen bitartez, ikasleek Europar Batasuneko enpresetan praktikak egiteko aukera dute otsail amaieratik martxo hasiera bitarte. Urtean bideratzen diren 20 beka ingurekin Bidasoa Institutuko ikasleak aukera du nazioartean barneratu, atzerriko hizkuntza hobetu eta Europako industria ezagutzeko.

Lan-munduratze programarekin ikasleen %90a enplegatzen da, bataz beste

ITUREN

Ekainaren 20rako ikasturte bukaerako besta antolatzen ari da Guraso Elkartea

Herri kirolak, bazkaria eta musika izanen dira

ttipi-ttapa

Ekainaren 20rako ikasturte bukaerako besta antolatzen ari da Guraso Elkartea. Ekitaldi hauek iragarri ditu:

12:20ean herri kirolak
13:30ean bazkaria
Ondotik musika

Haurren bazkaria Guraso Elkarteak ordainduko du eta horretarako haurren izena eskolako tutoreei ematea eskertuko dute. Nahi duten helduak ere animatzen ahal dira (aita-ama, atautxi-amatxi, izeba-osaba...). Helduen bazkaria 12 euro gostako da eta Ostatuan apuntatu behar da. Animatu!!

Web orria berritua

Duela hilabete batzuk Udalak web orria berritu zuen. Informazio ezberdina aurki daiteke bertan; herriko historia, zerbitzuen telefonoak, ibilaldi birtuala, eguraldia, turismoa... Eta eskaera egiteko orria ere bertan eskura daiteke: *www.ituren.es*

Aralarko San Migelen bisita

Ekainaren 3an ongi etorria egin zioten herritarrak Goi Aingeruaren irudiari. 12:00etan meza nagusia izan zen Sar Martin elizan eta 16:30ean Palazio atarian ohiturari segituz San Migel saindua adoratu zuten hurbildutakoek. Ondotik, Palazioko familiak San Migelen etorreraren aspaldiko argazkien erakusketa ttiki bat prestatu zuen. Jendearen harridura izugarrai izan zen, batzuek garai bateko momentuak bizitu zituzten eta bertze aunitzek herriko xaharrek kontatzen zituzten anekdotak entzun zituzten.

Ander Erasun finalean

Maiatzaren 24an, Urrezko Aizkorako finalerdiak jokatu ziren Urrotzen. Ander Erasun eta Julen Kañamaresen artekoa ere lehiatua eta borrokatua izan zen, baina azkenean Erasun gailendu zen 7 minuto eta 41 segundorekin. Beraz, aurtiztar gaztea ekainaren 7an Azpetian jokatzekoa zen finalean aritu zen, Oihan Larretxearen aurka.

ARGAZKIAK: ITUREN ETA ARESOKO ESKOLAK

5. eta 6. mailako ikasleak dagoeneko etxera itzuli dira Andaluziatik

Maiatzaren 27tik ekainaren 2ra bitarte Almeria eta Granadan egon ziren eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak. Dagoeneko itzuli dira, eta Areso, Tarragona eta Madrilgo ikasleekin egun paregabeak pasatu dituztela aitortu digute. Balorazio positiboa egin digute eskolatik; leku aunitz bisitatu dituzte, zein baino zein ederragoak: Granada hiria eta Alhambra, Almeria hiria, El Ejidoko negutegiak, pelikulak filmatzen dituzten basamortua, lorategi botanikoa, Mojacar herri txuria, hondartzak... Egun guztietan bi koordinatzaile beraiekin egon ziren eta hauek toki bakoitzeko azalpenak eman zizkieten. Orain memoria bat prestatuko dute Nafarroko Gobernura eta Almeria eta Granadara bidaltzeko. Eta atera dituzten argazki mordoekin eskolan emanaldi ttiki bat egiteko asmoa ere badutela aipatu digute.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
Langile autonomoak
Nekazariak eta mendi langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-Kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta altorpenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
artekari@artekari.com
LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

arkilanak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D
ELIZONDO · Santiago, 54 behea · 948 581 931
BERA · Eztegara, 8 behea · 948 625 232

LANA

Langabeziak %5 egin du beheiti maiatzean Doneztebeko Enplegu Bulegoan

591 langabetu zeuden maiatzaren hondarrean, apirilean baino 32 guttiago

ttipi-ttapa

Azken hiru hilabetetako beheitiko joera mantendu du langabeziak eta %5,14 beheiti egin du eskualdean maiatzean. Zehazki, maiatz hondarrean 591 langabetu zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emandakoak, apirilean baino 32 guttiago.

Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez 392 kontratu egin ziren apirilean, baina horietatik 58 bakarrik izan ziren mugagabeko kontratuak. Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtetik goitiko emakumeak dira langabezia gehien jasaten dutenak, baina aldi berean, beraiek dira langabeziaren jautsiera gehien sumatu dutenak. 25 urtez goitiko 313 emakume daude langabezian eskualdean, apirilean baino 36 guttiago. 25 urtetik goitiko 197 gizaseme daude lanik gabe, aitzineko hilabetean baino 7 guttiago. 25 urtez beheitikoen artean, 33 emakume daude langabezian, apirilean baino bat guttiago. Beraz, adin tarte horretako gizonen artean bakarrik igo da langabezia: 48 dira langabetuak, joan den hilabetean baino 12 gehiago.

Lan arloei dagokienez, zerbitzuen arloak segitzen du langabetu gehien biltzen, 368 langabeturekin, apirilean baino 34 guttiago. Industrian 140 langabetu daude; eraikuntzan 39; nekazaritzan 13. Beraz, aitzinetik lanik topatu ez dutenen artean igo da.

5+5 Gordailua

oparia +%5

Opari eder bat eskuratzeaz gain... sekulako errentagarritasuna irabaz dezakezu.

Izan ere, 12 hilabeteko epean ezarritako **5+5 Gordailuarekin,** zuk nahi duzun oparia aukeratzeaz gain, %5eko interes-tasa **U.T.B. eskuratuko duzu azkeneko 6 hilabeteetan.**

Gordailua hasi den egunetik 6 hilabetetara erabilgarritasun osoa izanen duzu gasturik gabe.

1. **NESPRESSO DELONGHI KAFE-MAKINA**
   6.000 €ko ezarpena %4,87 U.T.B.
2. **TOMTOM GPSa + SONY ARGAZKIMAKINA 7MPkoa**
   14.000 €ko ezarpena %4,84 U.T.B.
3. **LG TELEBISTA LCD 19"koa, TDTarekin**
   17.000 €ko ezarpena %4,81 U.T.B.
4. **COMPAQ ESKUKO ORDENAGAILUA**
   27.000 €ko ezarpena %4,78 U.T.B.
5. **LG TELEBISTA LCD 32"koa, TDTarekin**
   32.000 €ko ezarpena %4,80 U.T.B.

Eskaintza honek balioko du 2008ko ekainaren 30a bitarte edota jaulkipena bukatu arte Nafarroako Rural Kutxan aurrezkimaila garbia handitu duten pertsonentzat. Izakinak bukatuko balira, balio berdineko edo handiagoko artikuluak emanen dira.

nire aukera

NAFARROAKO RURAL KUTXA

www.ruralvia.com
Tel: 902 310 902

SALDIAS

Sanjuan bestak ekainaren 20t 24ra

Igandean aizkora apostua jokatuko da: Erasun eta Saralegi, Larretxea lehengusuen aurka

Ostirala 20

20:00etan ohiturari segituz zopak Herriko Ostatuan. **Gauez** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Larunbata 21

9:00etan argi soinuak herriko trikitilariekin. **11:00etan** herriko mus txapelketa. **18:00etan** pilota partidak. Saldiasko erremontista afizionatuen arteko partida. Segidan, eskuz afizionatuen arteko pilota partidak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Igandea 22

9:00etan hasi eta egun guztian BETI ALAI txaranga herria alaitzen ibiliko da. **13:00etan** aizkora apostua: Ander Erasun eta Ruben Saralegi, Oihan eta Garikoitz lehengusuen aurka. **18:00etan** gazte eta afizionatuen arteko pilota partidak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.

ARGAZKIA: PEDRO URRUTIAK UTZITAKOA

Herri bazkariak ez du hutsik eginen Sanjuan besta hauetan ere. Argazkia duela 15 bat urte ateratakoa da eta ageri denez giro onean joan zen. Aurten ere halaxe izanen da.

Astelehena 23

9:00etan argi soinuak herriko trikitilariekin. **Goiz eta arratsaldez** umeentzako jokoak, karts eta gaztelu haizatuekin. **14:00etan** herri bazkaria Herriko Ostatuan. **18.00etan** pilota partidak. **22:00etan** Sanjuan suak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MODESTOrekin.

Asteartea 24 Sanjuan Eguna

9:00etan argi soinuak txistulariekin. **11:30ean** Meza Nagusia, San Juan herriko patroiaren omenez. **Arratsaldean** pilota partidak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.

Aukera ezazu ttipi-ttapa laguntzeko proiektua NAFARROAKO AURREZKI KUTXAren

Zeuk aukeratzen duzu, zeuk erabakitzen duzu

Proiektu zka.: 14640

canxa

Zure aukeraketa bide hauek erabiliz egin dezakezu:

• Clavenet, Nafarroako Kutxako banku elektronikoa • Kutxazain automatiko berrietan • Bulegoetan, CANeko kudeatzaile pertsonal batek lagundurik • Bestela, bete ezazu argitara emanen diren lerro, jarduera eta proiektu guztiei buruzko argibide materialetako galdetegia, zehaztu zure erabakia eta bidali Nafarroako Kutxara.

Antolatzaileak | Organizan: **Zugarramurdiko Udala** I **Akelarre Elkartea** I **Sorginen Museoa**

Informazio gehiago | Más información: **www.xareta.es**

Laguntzailea | Colabora: NAFARROAKO RURAL KUTXA
CAJA RURAL DE NAVARRA

LEITZA

Ekitaldiz beteriko eguna antolatu da Barriolaren eta Bengoetxea VI.aren arteko finala dela eta

Partida ikusteko pantaila haundi bat paratuko da Karrapen

Joseba URKIOLA

Egun handia izanenda igandea. Eskupilotaren historian hirugarren aldia izanen da eskuz banakako final bat herri bereko bi semek jokatuko dutena. Hortaz, Udalak, Aurrera Kirol Elkarteak eta Barriola eta Bengoetxea VI.aren koadrilak ekitaldiz betetako eguna antolatu dute.

Goizean txistulariak herriko karrika eta txokoak doinuz alaitzen ibiliko dira; eguerdi partean Aurrera Pilota Eskolako pilotariak plazan izanen dira eta Incansables txaranga herrian barna.

Denek ezin izanen dute finala frontoian ikusi, eta hori dela eta, Karrapen pantaila erraldoia jarriko da partida ikusi ahal izateko. Hitzordu garrantzitsuaren ostean eta frontoikoak etorri bitartean, txarangak alaituko ditu bazterrak.

Bi pilotariak herrira iristean, ongi etorri berezia eginen zaie. Ondotik, herri afaria izanen da; euria eginez gero, Amazabal pilotalekuan eta bestela, plazan. Hortik aurrera, Incansablesekoak arduratuko dira gauari bizitasuna emateaz.

2008ko udal aurrekontua

EAE-ANVren aldeko sei botorekin eta gainerako alderdikoen bost abstentziorekin, maiatzaren 30ean onartu zen 2008rako aurrekontua. Hiru milioi pasako aurrekontua izanen du Udalak —3.271.777,66 euro–, eta inbertsio errealetarako 827.209 aurreikusi dira. Kopuru horretatik zati haundi bat abeltzaintzako azpiegituretara bideratuko da: 300.000 euro.

Horrez gain, 100.000 gastatuko dira mendian; udaletxean igogailua jartzen 90.000 euro joanen dira; kaleko moldaketa lanetan 30.000; eskolan berogailua paratzen 110.000 euro; igerilekua konpontzen 120.000 euro eta markesinetan 12.000 euro.

Gainerakoan, mantenimendu lanetara 1.061.722 euro bideratuko dira; eta mankomunitateei eta herriko hainbat entitateri ematen zaizkion laguntzetan 334.400 euro.

Ihoteen DVDa

Agustin Aranburuk Leitzako ihoten inguruko DVDa kaleratu du. Aurtengoan atsauretzeko ohitura berreskuratu dela kontutan hartuta, Aranburuk lehengo eta oraingo ihoteen hainbat irudi bildu ditu.

DVDa sei zatitan banatua dago. Lehenengoan, herriko hainbat pertsonek atsauretzearen ohitura berreskuratzeko 2007ko uztailean eginiko bilera ageri da. Bigarren zatian, 1973-1974ko ihoteetako irudiak ageri dira. Hurrengo zatietan 2002tik 2008rako ihoteen irudiak ikus daitezke. Lan honek bere ukitu didaktikoa ere badauka, atsauretzeko txapel bereziak nola egin behar diren azaltzen baita.

Musika Eskolako matrikulazio kanpaina

Aralar Musika Eskolak datorren ikasturteko matrikulazio kanpaina abian jarri du. Ekainaren 20an amaituko da izen emateko epea. Interesatu orok udaletxera joan beharko du.

Eskaintzari dagokionez, heldu eta gazteei zuzendutako eskaintza zabala izanen da, eta berrikuntza bat ere bai tartean: 7 urtetik gora dituzten haurrek ere musika tresna jotzen ikasteko aukera izanen dute.

Argibide gehiagorako 948 505589 telefonora, *www.aralar.org* web orrialdera edota udaletxera joan edo hots egin

ARGAZKIAK: NAIARA GARTZIA

Kantuz hornitutako Aste Kulturala

Artisau azokak eta Bihotz Bakartien Klubak gidatutako Katamalo ikuskizunak eman zieten amaiera aurtengo Aste Kulturalari. XXX. ekitaldia kantua nagusi izan duen edizioa izan da. Lehen asteburuan bederen, Euskal Kantu Topaketa tarteko, euskara eta kantua protagonista izan ziren. Halere, bestelako ekintzetaz gozatzeko parada ere izan zuten herritarrek: Iñigo Txinaurrietak eskainitako Europako eta espainiar estatuko momentuko historiari buruzko hitzaldia, merkataritza librearen inguruan emandako argibideak, euskal jokoen Nafarroa Garaiko kanporaketa... Amaiera emateko 40 artisau baino gehiago eta IV. Eho-ziri topaketara etorritako 110 lagun inguru bildu ziren plazan. Hauekin batera, udaletxeko areto nagusia eta haurrentzat egokituta dagoen aretoa ere jendearen arreta iturri izan ziren. Izan ere, aste osoan hainbat erakusketa ikusgai eduki arren, herritar eta bisitariek azken egunа aprobetxatu zuten Maite Biurrarenaren lanak, aurtengo ihoteetan atsauretu direnen txapelak eta beste hainbat objektu eta argazki ikusteko.

GOIZUETA

Eskolaren 25. urtemuga ospatuko da larunbat honetan

Dantzak, bertsoak, erakusketa, eta musika emanaldiak izanen dira

Esteban AROTZENA

Andres Narbarte *Xalto* eskola publikoa orain dela 25 urte inauguratu zen, eta merezi bezalako festa antolatu dute eskolakoek beraiek larunbat honetarako, hilak 14.

12:00etan hasiko dira aktuaren barreneko ekitaldi ezberdinak. Umore Ona Dantza Taldea, bertsolari gaztetxoak, argazki erakusketak eta abarrek osatuko dute lehenengo zatia. Ondoren, 14:30ean, herri bazkaria izanen da. Sabelak bete eta zintzurrak berorutakoan musikak eta kantuak hartuko du bere lekua, aurrena Musika Eskolako ikasleen ikasturte bukaerako ohiko kontzertuarekin, eta ondoren, bazkaltiar guztien parte-hartzearekin eginen den emanaldiarekin. Aipatutako guztia eskolako frontoian eta atarian burutuko da.

Fusarium gaitza

Bruselatik etorritako Europar Batasuneko, Espainiako Nekazaritza Ministerioko eta Nafarroako Gobernuko teknikoek gure mendietako hainbat pinudi ikuskatu zituzten ekainaren 2an. Insignis pinua jasaten ari den Fusarium gaitza omen zen bisitaren arrazoia, aipatutako taldeko teknikoetako batek esan zigunez.

Korua Hernanin

Entsaiatzen hasi eta bi urte baino lehenago herriko mugak gainditzeko erabaki ausarta hartu du Koruak. Lehengo larunbatean kontzertu arrakastatsua eskaini zuen Hernaniko Saindiusterri areto ederrean, eta hil honen 21ean herri berean izanen dira, Ereinozuko Ozenki abesbatzarekin batera burutu beharreko kaleko jardunean.

'Zeuk aukeratu, zeuk erabaki'

Nafarroako Kutxaren *zeuk aukeratzen duzu, zeuk erabakitzen duzu* programak Udalak aurkeztutako bi proiektu onartu ditu 2008rako. Bat, urtean zehar antolatuko diren hainbat kultur eta kirol jarduerak biltzen dituena da, 28.500 euroko aurrekontuarekin; eta bestea, 10.683 eurokoa, mendian egin beharreko zenbait lanena.

UTZITAKO ARGAZKIA

Goizuetako 'historiaren trena'

Maiatzaren 29an *Xalto* eskolako ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkarlanean aritu ziren. Bigarren hiruhilabetean, ikastetxetik deia egin zitzaien gurasoei gai desberdinei buruz zekitena elkar-trukatzeko, eta halaxe egin zuten. Herriko etxeen, lanbideen eta herriko historiari buruzko hiru hitzaldi antolatu ziren. Hitzaldien ondotik ikasleek zikloz-zikloz jasotakoari buruz lantxoak egin zituzten eta denen artean *historiaren trena* deitu dutena osatu zuten, historiaurretik hasi eta gaurdainoko kontuekin.

ARESO

Eskolako ikasleek baratze bat paratu dute martxan

Udalak utzitako lur eremu batean egin dute

Juana Mari SAIZAR

Joan den urtean pentsatutako proiektua aurten jarri dute martxan eskolako irakasle eta ikasleek. Eskolako eremuan eta Udalak utzitako lur zati bati itxitura eginda, baratza bat zabaldu dute.

Lehenbiziko urratsean Haur Hezkuntzakoak aritu ziren lanean eta geroago Lehen Hezkuntzakoak ere proiektuan sartu dira. Aurtengo gaia elikagaiak zein landareak hazietatik nola sortzen diren izan da, zainak nola hazten diren egunero eta abar. Hortik hasita, elikagaiekin eskolan denda txiki bat egin eta jolastuz eta ikasiz irakurketa, idazketa eta matematika landu dituzte.

Migel Aingeruaren bisita

Migel Aingeruaren bisita izan dugu aurten ere, baina esan behar da nahiko presaka egiten duela bisita. Gaixoak agurtzera joaten da etxeetara, baina bere gaixotasunagatik joan ezin duelako eta beste herrietara joan behar duelako nahiko presaka ibili ohi da. Merezi ote du hain laburra den bisitak? Eta Migel Aingeruak ongi etorri hobe bat ez ote du irabazi?

ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek egitasmo berritzailea paratu dute martxan. Argazkian euren baratzearen ondoan ageri dira.

ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Hitzaldiak eskolan

Amaia Vazquez psikologoa hitzaldi batzuk ematen ari da eskolan eta gurasoak nahiko gustura omen daude. Argazkia heziketari buruz egindako saioan ateratakoa da, eta gurasoak Amaia psikologoarekin ageri dira.

ARANO

Suron argia jartzeko lanak laster bukatuko dira

Kontxi KLABER

Urtarrilean eman zioten hasiera Suroko argi-indarra jartzeko obrei eta maiatzaren 29an ikusi genituen lehen aldiz piztuak. Halere, badirudi oraindik arazoren batzuk egon badaude baina konpontze lanetan ari dira. Gauez asko aldatu da auzo hau, ilunpean egotetik argiak izateak arraro eta guzti egiten da

Goizuetatik Aranora

Iazkoa aurten errepikatu egin da. Maiatzaren 24an Goizuetako hainbat guraso eta haurrek Aranorainoko oinezko bidaia egin zuten. Nahiz eta dudako eguraldia izan ez zuten umorerik falta izan goizuetarrek 30 ume hartu eta bidea egiteko eta gustura gainera. San Roke elkartean bazkaldu ondoren autobusez bueltatu ziren herrira.

betiko

PVC eta aluminio aroztegia

· PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA · SALMENTA ETA INSTALAZIOA

· NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK

· DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK

· BANAKAKO SOLUZIOAK

· ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK

· ENERGIA AURREZPENAK

www.betikopvc.com betikopvc@terra.es
Ordoki industrialdea z/g · Tel.: 948 453 259 · Faxa: 948 453 423 · 31713 ARIZKUN (Nafarroa)

ARKUPEAK

Arkupeak Elkarteak uztailaren 2ra gibeleratu du urteroko besta

Garraiolariek iragarritako autobusen grebaren beldur hartu dute erabakia

ttipi-ttapa

Aitzineko **ttipi-ttapa**-ren alean iragarri bezala, Arkupeak Erretiratu eta Jubilatuen Elkarteak ekainaren 4an egitekoa zuen Gorraizen urteroko besta haundia, Urrezko eta Diamantezko Ezteiak egin dituzten senar-emazteak eta 85 urte bete dituzten bazkideak omentzeko. Bada, besta hori uztailaren 2ra gibeleratzea erabaki zuten, autobus gidariek ekainaren 3rako deitua zuten grebaren beldur. Hala ere, azkenean bertan behera gelditu zen garraiolarien greba. Bazkideak Gorraizera hurbiltzeko zailtasunak izanen lituzketela pentsatuz, besta eguna uztailaren 2ra gibeleratzea erabaki zuen Arkupeak Elkarteak.

Egitaraua berdin-berdina izanen da; meza entzun ondotik bananbana oroigarriak banatuko dira. Aurten guztira, Urrezko Ezteiak bete dituzten 12 bikotek jasoko dute omenaldia; Diamantezko Ezteiak egin dituzten bertze bi bikotek; eta 85 urte bete dituzten 39 lagun ere omenduko dira.

ARTXIBOA

Ekainaren 4an egitekoa zen besta uztailaren 2an eginen da azkenean.

LOURDESERA HELDU DEN ASTEAN

Bertze aldetik, Arkupeak Elkarteak eta inguruko zenbait apaizek elkarlanean bi eguneko bidaia antolatu dute Lourdesera. Hurrengo astean izanen da, astearte eta asteazkenarekin, ekainaren 17an eta 18an. Lourdesera egiten diren bidaien ohiko egitaraua izanen da honetan ere, hori bai, gau bat emanen dute Lourdesen. Hartara, suzirien prozesioan parte hartzeko aukera izanen dute.

Bidaiaren prezioa, logela bikoitzean 80 eurokoa izanen da eta bakarkako logelan, bakarren bat aukeran baldin badago, 95 eurokoa.

Horrez gain, uztailean Kantabriako Puente Viesgoko bainuetxera joanen dira zortzi egin pasatzera, 9tik 17ra. Azkeneko 20 urteotan elkarteko bazkideengan ohiko bihurtu den bidaia da Kantabriako bainuetxe honetara joatea.

EUSKARA

Larunbat honetan eginen da UEMA Eguna Azpeitian

ttipi-ttapa

Sustraiak galtzen ez utzi. Euskarari eutsi lelopean Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) larunbat honetan, ekainak 14, eginen du urteko besta haundia. Aurtengoan Azpeitia aukeratu du horretarako. Eskualdean bortz dira UEMAren barne dauden herriak: Arantza, Goizueta, Zubieta, Leitza eta berriki sartu den Areso. Egun osoko egitaraua prestatu dute antolatzaileek. 09:00etan pilota partidak jokatuko dira Frontoi Txikin Lea-Artibai eta Azpeitiko pilotarien artean. 10:00etan Batzar Nagusiaren bilera eta kide berrien onarpen ofiziala eginen da: Areso, Azpeitia, Atxondo, Otxandio eta Mallabia. 11:00etan herrialdekako herri kirol lehia jokatuko da; 11:30ean harrera instituzionala udaletxeko pleno aretoan; 13:00etan ekitaldia plazan (bertsolariak, dantzariak…); 14:30-ean bazkaria Berdura Plazan; 15:30ean haur parkea Herriko Plazan; 17:00etan Txotxongiloak. 18:00-etan EGA-Nekin dantzaldia plazan eta karriketan batuka da.

CEPSAren mini1000 berria

Energia asko toki txikian

CEPSA Gas Likidotuak gas propanoa komertzializatzeko tankearen tamaina berria merkaturatu du. Bere neurriagatik eta edozein tokitan instalatzeko ematen duen aukeragatik, gasontzi hau *«energia asko toki txikian»* emateko irtenbide onena da, modu eroso eta malgu batean.

Produktu honek gaitasun handia duten –2.450tik 100.000 litrora– propano-biltegien eskaintza zabaldu egiten du, industria handi eta bizilagun elkarteen beharrak asetzeko adinakoak direnak.

CEPSAren gas propanoa energia garbia eta bero-ahalmen handikoa da, atmosferara CO_2ren partikula gutxien isurtzen duena. Hala, aldaketa klimatikoa murrizten laguntzen du, eta aproposa da edozein etxebizitza edo lantokirako.

Gero eta gehiago hedatzen ari diren bi merkatu-nitxo jakinen beharrak asetzera dator mini1000: familia bakarreko etxebizitzak edota eremu murritza duten jatetxeak, eta landetxe eta industria txikiak edo isolatuak.

Mini1000 gasontzi berriarekin dena da abantaila, behar bakoitzaren eta tokiaren arabera egokitzen baita:

- Agerian dauden gasontziekin (1.000 l), bedin zutikakoak zein etzanak izan, ez da ez proiekturik ez instalatzeko obrarik ere behar. Eta etxeko eremuaren mugatik metro eta erdira jar daitezke.
- Eta lurrazpiko gasontziak (1.000 l - 1.750 l) eremu txikia duten kasuetarako dira. Instalazioa egiteko zuloa baino ez da egin behar eta ez du inolako eragin bisualik.

Merkaturatu zenetik harrera ona izan dute mini1000 gasontziek, eta dagoeneko 700 baino gehiago dira etxebizitza edo lantokietarako soluzio hau aukeratu duten bezeroak.

Eskatu orain mini1000 instalatzeko behar den informazioa. Abantaila ugari dituzu abuztuaren 30a baino lehen kontratatuz gero:

- Baldintza bereziak.
- Eta mini1000 instalatzeko laguntza. 300 eta 1.200 euro bitarteko laguntza, tankearen neurriaren arabera.

Merkaturatzeari, instalazioari eta gasontzi hauen eskaintzari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, gure Nafarroako Merkataritza Agentziara dei dezakezue:
PETRONAVARRA Tel. 948 302 505
http://www.cepsa.com/gas/

BERTSOLARITZA

Amaia Elizagoien 14 urte artekoen Nafarroako eskolarteko txapeldun

14 eta 18 urtekoen kategorian Josu Sanjurjok bigarren saria lortu du

ttipi-ttapa

Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatuta, Nafarroako Bertso Eskoletan aritzen diren gaztetxoek haien eguna egin zuten Larraintzarren maiatzaren 31n. 50 haur eta gaztetxo bildu ziren aurtengo Bertso Eskolen Egunean.

Egun horretan jokatu zen 14 urte artekoen eskolarteko txapelketaren finala eta txapela eskualdera etorri zen, Baztanera. Oronoz-Mugairiko Amaia Elizagoien nagusitu zen eta bigarren postua Iruñeko Haizea Berueterentzat izan zen. Manolo Arozena, Bittor Elizagoien eta Juan Mari Lopez bertsolariek finalean parte hartu zutenei kopak eta sariak banatu zizkieten.

ARGAZKIA: GONTZAL AGOTE

Maiatzaren 31ko Bertso Eskolen Egunean parte hartu zuten ikasle eta irakasle batzuk ageri dira argazkian.

Finalean parte hartu zuten eskualdeko gainerakoak hauek izan ziren: Martxel Intxausti (Leitza), Lesakako Maddalen Lopez, Aitor Altzugarai, Ibon Txoperena eta Gorka Sanjurjo eta Narbarteko Sukil Etxenike. Finalaz gain, jolasak, bertsoak eta karaokea izan ziren.

Bertzalde, ekainaren 5ean jokatu zen Iruñean 14 eta 18 urte bitarteko eskolarteko txapelketako finala. Nafarroa osoko 12 bertsolari gaztek hartu zuten parte. Eskualdeko ordezkariak Patxi Castillo (Bera); Ioar Tainta (Lesaka); Josu Sanjurjo (Lesaka); Irati Arrieta (Sunbilla); Maialen Belarra (Doneztebe); Egoitz Gorosterrazu (Ituren) eta Iker Gorosterrazu (Ituren) izan ziren, eta bigarren saria ailegatu zen eskualdera. Josu Sanjurjok eskuratu zuen. Saioa Alkaiza irabazle antsoindarrarekin batera Euskal Herriko eskolarteko bertsolarien finalean parte hartuko du. Ekainaren 21ean izanen da hori, Altsasun.

GIZARTEA

Gizarte enplegu babestua sustatzeko laguntzak onartu ditu Gobernuak

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak 5,6 milioi euroko laguntza emanen du Nafarroa osoko hainbat proiektu laguntzeko. Proiektu horiek gizarte enplegu babestua sustatzeko dira eta 40 entitatetara ailegatuko da, tartean eskualdeko gizarte zerbitzuetara. 429.206,95 euro bideratuko dira Leitzaldera, Baztanera, Bortzirietara eta Malerrekara: 70.416,19 euro jasoko ditu Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak; Baztango Udalak 58.078,82 euro; 154.323,73 euro Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak eta 146.388,21 euro Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak. Laguntza horien bidez, Nafarroa osoan 681 laguni lanpostua eskaintzea aurreikusi du Gobernuak: 392 emakume eta 289 gi-

ttipi txartelarekin beti irabazten da!

deskontuak
DENDA HAUETAN EROSTEAGATIK

FANTXIKE
FANTXIKE Jantzi-denda • ELIZONDO
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan

AYLA
argazkigintza fotografia
AYLA Argazki-denda • BERA
%10 kopia digitaletan, NAN argazkietan

MariCruz LENCERIA
MARICRUZ • DONEZTEBE/ELIZONDO
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan

edurne HAUR ARROPADENDA
EDURNE Arropa-denda • BERA
%5eko deskontua, 30€tik gora, eskura ordaindut

ARGIBEL OPTIKA
ARGIBEL DONEZTEBE/ELIZONDO
%10eko deskontua lantejo graduatuetan

Kalotxa. Zapatadenda. Osagarriak.Konponketak.
KALOTXA zapata-denda • ELIZONDO
%5eko deskontua, 18€tik gorako gastuan

SANSIÑENA garajea AGRIA
SANSIÑENA Garajea • ELIZONDO
%10eko deskontua olio-aldaketetan

SARIDUNAK:

1. Euskal Musika 4 CDko lotea: Lourdes Indakoetxea (Doneztebe)
2. Txapela buruan elastikoa: Mª Jose Apeztegia (Ituren) Mª Dolores Albizu (Lesaka)
3. Lauburua mahai-jolasa: Marcelina Ormart (Elizondo) Edurne Urroz (Sunbilla)
4. Donostiako Aquariumera 2 sarrera: Jaione Otxandorena (Sunbilla)
5. Oninart 2 kamiseta: Eneko Iriarte (Arizkun)
6. Nafarroa Oinez lotea: Ekiñe Mindegia (Aurtiz)

SENDAVIVA 4 sarrera Leire Portu (Lesaka)

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58 telefonoan

8 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
astelehenetik ostiralera
09:00-16:00.
Tel: 948 63 54 58

1 BOST LIBURU
Non nago? Oinatak jauregian Euskaldun bat Marten +8 urte Lurpeko harrieka +12 urte Hersa bikingoa +8 urte
Lote 1
ibaizabal www.ibaizabal.com



2 Goiz edo arratsalde batean
Abentura parkea, tirolina, zuhaitz zirkuitua...
BI SARRERA
Lote 1
BKZ Nafarroa Abentura www.nafarroaabentura.com

3 Haur eta helduentzat
BI ELASTIKO ETA ZAPIA
Lote 1
baztandarren biltzarra

4 Haur eta helduentzat
BI ELASTIKO
Lote 1
oninart www.oninart.com

5 ELASTIKOA
2 Lote
www.txapelaburuan.com

6 Ziztadak
MAHAI JOLASA
2 Lote
HARPIDETZA
Argia aldizkariaren 6 hileko harpidetza
2 Lote
ARGIA www.argia.com

ttipi saskia

TTIPI SASKIAren ZOZKETAN
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE
Bidali SMSa idatziz TTIPI SASKIA 5767



Lote 1 **2 sarrera**
AQUARIUM DONOSTIA 943 44 00 99 www.aquariumss.com

SENDAVIVA
Lote 1 **4 sarrera** 2 heldu+2 haur

Zozketan parte hartzeko epea: ekainaren 11tik 18ra. Irabazleen izenak ekainaren 26ko aldizkarian argitaratuko da. Mezuaren kostea 1,20€ (BEZ gabe). Zure datuak ttipi-ttaparen fitxategian gordeko dira aurrerantzean izanen diren eskaintzen berri emateko. Zuzenketa edo deuseztapenen bat egiteko deitu 948 63 54 58ra

BAZTAN

Iruritatik Elbeterako saihesbidearen behin-behineko proiektua onartu du Gobernuak

5,8 kilometro luze izanen ditu errepide berriak

Maite OTEIZA

Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak onartu du Irurita eta Elbete arteko saihesbidearen behin-behineko proiektua. Behin-behineko onespena da oraingoz, jendaurrean ikusgai paratua baita kaltetuek ikus dezaten. Halere, trazatua behin betikoa da.

Proiektu berri horren arabera, bide berriak 5,8 kilometro izanen ditu, eta Irurita iparraldetik hasiko da eta Elbeten bukatu. Hor eginen du gaur egungo bidearekin lotura. Zehazki, Arraiozko saihesbidea pasatuta hasiko da trazatu berria, Artesiagako erreka zeharkatuko du segidan, NA-4405 errepidearen gainetik gurutzatuko du egungo N-121B Oharrizekin lotzen duena, eta antzinako trenaren bidea baliatuz Baztan ibaia gurutzatuko du bidezubi baten bitartez. Ondotik berriro NA-4405 eta NA-4403 errepideak gurutzatuko ditu, azken hau biribilgune batekin. Azkenean Elizondorako sarbidea izanen du. Ibaiaren gainean zubi berri bat eraikiko da. N-121B errepidearekin lotura eginez bukatuko da bide berria.

Saihesbideak zazpi metroko luzera izanen du, 3,5 metroko bi errei noranzko bakoitzarentzat, 1,5 metroko bazterbideak eta metro erdiko bermak. Guztira sei biribilgune aurreikusi dira, bi bidezubi Baztan ibaiaren gainetik eta lau pasabide saihesbidearen azpitik.

Begoña Etxandiren gasna

Etxalarko Gasna Lehiaketan Baztan Gasnategiko Begoña Etxandi arraioztarrak lehen saria lortu zuen. Guztira 17 zazpi gasna aurkeztu ziren, bi maileta: bat eskualdeko gasna ekoizleendako eta bertzea herrikoendako. Saria bere iloba Josu Etxandik jaso zuen izebaren ordez.

ARGAZKIA: ONDIKOL

'Erregina ta Saratsak' Arizkunen

Aspaldiko ohitura berreskuratuz, *Erregina ta Saratsak* Arizkunera itzuli ziren maiatzaren 25ean. Garazi Iriarte herriko neska zuriz jauntzita karriketan barna ibili zen, loreekin egindako koroa buruan eta loreen saskia eskuartean zuela. Bere lagunek, hauek ere zuriz jantzita, tronuan eraman zuten. Baztanen Arraiozen eta Arizkunen bakarrik mantentzen den ohitura da, nahiz eta aitzineko bi urteetan neska faltagatik ez zen egin. Aitzineko asteetan Bozaten, Goitikosten eta Beitikosten egin zen, baina 1941. urterarte Bozaten bakarrik egiteko ohitura zegoen.

ARGAZKIA: ONDIKOL

'Mila eta bat sorpresa'

Oronoz- Mugairiko Asun Santervasek eskuratu du Bertan Merkatarien Elkarteak antolatutako *Mila eta bat sorpresa*ren sari nagusia. Kantabriako bainuetxe batean asteburua pasatzeko aukera izanen du. Halako kanpainen helburua bezeroak saritzea da, herriko dendetan erosketak egiteagatik, eta bidenabar, inguruari bizitza emateagatik. Kasu honetan sari zuzenak eman dira, denetara mila opari, eta Kantabriarako bidaia opari izarra izan da.

BAZTAN

NaBaik UPNri: «non daude Erratzuko kontsultategiko 100.000 euroak?»

UPNk bere boletinean argitaratutako informazioak NaBai haserrarazi du

ttipi-ttapa

«Berehala argi dezala non dauden Erratzuko kontsultategirako hitzartu omen zituzten 100.000 euroak». Galdera horixe luzatu dio Udaleko NaBaik UPNri. Izan ere, azken honen maiatzeko boletinean, UPNk Erratzuko kontsultategiko obrak finantzatzeko 100.000 euroko laguntza hitzartu zuela ageri da, baina NaBairen hitzetan, *«100.000 euro horiek ez dira udal kontuetara ailegatu, eta ofizialki hori ez da inon ageri»*. NaBairen arabera, kontsultategiko lanek 142.770 euroko gastua eragin zuten, eta horietatik 42.000 Nafarroako Gobernuak bideratu zituen. Gainerakoa (102.770 euro) Udalak ordaindu omen zuen.

ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Lekarozko Kolegioaren egoera «uste baino okerragoa»

Lekarozko Kolegioaren egoerak eta etorkizunak hizpide izaten segitzen du oraindik ere. Maiatzaren 28an Nafarroako Parlamentuko hainbat legebiltzarkide izan ziren bisitan, eta eraikinaren egoera eurek espero baino okerragoa zela ohartarazi zuten. Zehazki Kultura eta Turismo batzordeetako kideak eta zenbait tekniko izan ziren Baztanera hurbildu zirenak, Patxi Telletxea NaBaiko legebiltzarkidearen ekimenez. Buruko kaskoa soinean eraikina ikusi ondoren, Patxi Telletxeak Kolegioaren etorkizuna zalantzan paratu zuen: *«teknikoek erabakiko dute, baina lehen begiratuan botatzeak bideragarriagoa ematen du guztia konpontzeak baino, zaharberritzeak gastu ikaragarria ekarriko bailuke»*. Bertze batzuek, aldiz, eraikin osoa eraberritu beharrean, zatirik garrantzitsuena konpontzea proposatu zuten. Argazkian legebiltzarkideak ageri dira Kolegiora egindako bisitan.

FLASH

Eskoletako jarduerak

2008/2009 ikasturterako Baztango Herrietako Eskoletako eskolaz kanpoko jardueren erakustaldia Iruritan izan zen. Eskoletako gurasoek eskolaz kanpoko jarduera antolatuko dituzte herri desberdinetan, eta horretarako pasa den eriaroaren 5ean eta 6an, Iruritako Damaso Zabaltza Gizarte Bilgunean zenbait ekintzen erakustaldia egin zen. Eriaroaren 5ean adin guztietako jendearentzako osasunari buruzko jarduerak izan ziren (yoga, pilates...). Biharamunean, hilak 6, arte plastikoak, antzerkia, zirkoa eta malabarrak landu zituzten. Horiez gain, dantza, trikitixa eta mekanografia ikastaroak ere izanen dira, bertze aunitzen artean. Bertzalde, ikasturte hasieran Baztango Herrietako Eskolen I. besta izanen da. Gisa horretara aldarrikatuko dute eskolak herriko bizitzan garrantzitsuak direla, eta nahiz eta txikiak eta xumeak izan, hor daudela.

BAZTAN

3,3 milioi euroko kreditua onartu du Udalak azpiegitura lanetarako

Lekarozera ura ekarri eta Giltxaurdin soropil artifiziala paratuko da

ttipi-ttapa

Epe luzera begira, 3,3 milioi euroko kreditua onartu du Udalak 2005-2008ko Toki Azpiegitura Planaren barne dauden hainbat proiektu finantzatzeko. Horien artean, Elizondoko Giltxaurdi futbol-zelaian soropil artifiziala eta aldagela berriak paratzea daude, baita Lekarozko ur horniduraren proiektua ere. Obra honek 610.000 euroko gastua ekarriko duela aurreikusi dute. Futbol-zelaiko lanek, berriz, 705.800 euroko inbertsioa beharko dute. Aipatu, Balleko Etxearen eraberritze lanak 171.000 euro gostako direla. Mailegu horrekin zorpetze maila %17,24ra igoko omen da. Halakoetan, onartzen den portzentajea %25,73koa da.

Aipatutako bi proiektu nagusi horiez gain, Arizkunen, Almandozen, Oronozen eta Erratzun sare, hornidura eta zolatze-obrak egitea daude proiektuen artean.

Udako jostaldia

Hondar urteetan bezala, Udaleko Euskara Zerbitzuak udako jostaldia kanpaina abiatuko du uztailean eta abuztuanzenbait herrietan. 3 eta12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago eta jokoak, eskulanak, tailerrak, kirola, txangoak… eginen dira.

Bortz txanda antolatu dira: eriaroaren 30etik uztailaren 11ra Elizondon (erreferentzia BAZ-E1); eriaroaren 30etik uztailaren 11ra Iruritan (BAZ-IR); uztailaren 14tik 25era Erratzun (BAZ-ER); uztailaren 14tik 25era Zigan (BAZ-ZI); abuztuaren 1etik 14era Elizondon (BAZ-E2).

Jarduerak bi astekoak izan arren, aste bakarrean ere parte har daiteke, kontutan hartuz bi astetarako hartzen dutenek lehentasuna izanen dutela.

Matrikula 65 eurokoa da txandako, eta 55 eurokoa familia ugari edo txanda berean anai-arreba bat baino gehiago baldin badaude. Izen emateko Dindaia Fundaziora deitu behar da (948 266240) eta dirua Nafarroako Kutxako kontu honetan sartu: *2054010461914267385*0. Hondarreko eguna eriaroaren 20a da.

Manuel Landa joan zaigu

Bapateko heriotzek sortzen duten samintasuna Elizondorat ailegatu zen duela gutti, Manuel Landaren bat-bateko heriotzarekin. Elizondar peto-petoa, Txokotokoa, herriko saltsa guztietan zegoen laguntzen: baztan zopak, zikiroak... Isil-isilik gan da, bizi zen bezala.

ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Udako belagietara sartu dira behiak

Baztango 700 bat behi azienda buru Belate, Erdiz eta Lizartzuko herriluretan sartu ziren maiatzaren 31n, eta bertan bazkatzeko aukera izanen dute uda sasoian, irailaren 21a arte. Normalean, denboraldia ekainaren 1etik irailaren 29ra, San Migel egunera izaten da, baina aurten, ekainaren 1a igandea zenez, egun bat aitzineratu zen. Atera ere, normalean baino astebete lehenago atera beharko dute aziendek herri lurretatik. Eguraldiak lagundu ez arren, Udaleko guardek eta mendiko langileek Baztan Bailarako marka, BB, sutan ezarri zieten aziendei.

BERTIZARANA

Artisau eta Naturaren azoka igandean Bertizen

ttipi-ttapa

Eskualdeko turismoa garatzeko, eskuartean dituzten asmoen berri eman zuten Bertizko Turismo Partzuergoko arduradunek ekainaren 4an. Horien artean, gainean dagoena igande honetan, ekainak 15, Bertizko Natur Parkean eginen den Artisautza eta Naturaren azoka dago. Eskualdeko artisauen lanak erakusgai paratzeaz gain, haurrentzat ekitaldiak, musika, zozketak eta abar izanen dira, 10:00etatik 20:00etara. Ohikoak diren ekimenez gain —Naturan egonaldiak, Urdazubi-Baztango Donejakue Bideko ekitaldiak, Urdazubiko Pilotaren Unibertsoa...—, aurten berrikuntza gisa bisita gidatuak antolatuko dira Baztango eta Etxalarko megalitoetara, Leurtzako urtegietara eta Mendaurrera. Donamariako Jauregiarako bisitek ere segituko dute eta Iruritako Jauregiak ateak zabalduko ditu.



URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Dantxarineako obren barne Ugarana errekaren gainean zubia eraikitzen ari dira

Gobernuak Urdazubin eta Zugarramurdin egindako obrak bisitatu ditu Miguel Sanzek

ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Gobernuko eta udaletxeko ordezkariak maiatzaren 28an egindako bisitan.

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernutik jasotako dirulaguntzekin Urdazubin eta Zugarramurdin egin diren lanak bisitatu zituzten maiatzaren 28an Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidenteak, Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Ingurumen Kontseilariak eta Juan Ramon Corpas Kultura eta Turismo kontseilariak. Udaletxean Santiago Villares alkateak ongi etorria egin ondotik iazko uholdeek eragindako kalteak konpontzeko egindako lanak ikusi zituzten. Toki Administrazio Departamentuak milioi bat euro inguru bideratu zituen Urdazubira eta Landa Garapen Departamentuak bertze 150.000 euro.

Horrez gain, 2007an plazan eta monastegirako karriketan egindako zolatze lanak ere ikusi zituzten. Kasu horretan, 204.000 euroko aurrekontutik 131.000 Turismo Departamentuak eman zituen. 2005ean inauguratutako erromesen aterpetxean ere izan ziren, eta museo liturgikoan ere bai. Azkenik, Dantxarinean egiten ari diren obretara hurbildu ziren. Hemen, Ugarana errekaren gainean zubia eraikitzen ari dira. Lanak 3 milioi eurotik goiti gostako dira eta aurten bukatzea espero da.

Zugarramurdirako bisitan, berriz, Jesus Maria Agerre alkatearekin, leizeak eta Sorginen Museoa bisitatu zituzten. Azken honetan, 1.460.000 euroko aurrekontutik 850.000 Gobernuak bideratu ditu; Udalak 360.000 euro paratu zituen eta Cederna-Garalur Elkartearen bidez 245.000 euro lortu ziren. Leizeetan uholdeek utzitako kalteak konpontzeko Gobernuak 150.250 euro eman zituen.

ZUGARRAMURDI

Aurten lehenbiziko aldiz Sorginen Eguna eginen da ekainaren 21ean

Sorginekin lotura duten antzerkiak, hitzaldiak, erakusketak eta azoka izanen dira

Koro eta Margari

Ekainaren 21erako, larunbata, besta berri bat antolatu da herrian: Sorginaren Eguna. Akelarre Elkatearen, Udalaren eta Sorginen Museoaren ekimenez, goizetik hasita, 11:00etatik 21:00ak bitarte, ekitaldi diferenteak ikusteko aukera izanen da: karrikako ikuskizunak, ipuinkontalarik, antzerkiak, leizeetara joateko bisita gidatuak, txalaparta tailerrak, hitzaldiak, erakusketak... eta gure inguru hauetan batere ezaguna ez den zerbait ere bai: Sorginkeriaren Feria.

Azoka hau leize barnean eginen da eta sorginekin zerikusia duten salmenta postuak (belarrak, ukenduak...) eta kontsultarako postuak (*tarot*a, eskua...) izanen dira.

Bertzalde, aitzinean aipatutako ikuskizunak leizean, Beheitiko Karrikan eta Museoan izanen dira.

Sanzen bisita

Iazko maiatzean izandako uholdearen hondamenak konpontzeko lanak direla, edo turismoakin zerikusia dutenak direla, gauza da azken urte honetan Nafarroako Gobernuak Urdazubi eta Zugarramurdira laguntza politak igorri dituela.

Hala, maiatzaren 29an Miguel Sanz Gobernuko lehendakaria eta Turismo eta Ingurumen kontseilariak gure herrietan izan ziren, igorritako diruakin egindako lanak ikusten.

ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Herriko neska-mutikoak txirrindulari

Aste pare bat baizik ez da falta ikasturtea finitzeko, eta aipatzekoa da gure eskoletako haurrek, gelan ikasi dutenaz gain, bertze ekintzetan parte hartuz ere ikasten dutela. Argazkian ageri direnak ikasle koxkorrenak dira, maiatzaren 23an Leorlasko eskolatik Sarako leizeetara bizikletaz egin zuten ibilaldian. Horretaz gain, kirola maitatzeko eta ingurumena ezagutzeko asmoakin, bertze irteera batzuk egin dituzte ikasturtean zehar: mendira, eskiatzera, eta azkenekoa Zuaza irlara hiru egun pasatzera.

SARA

Ikastolako haurrek diskoa atera dute

Heldu den igandean aurkeztuko dute Sagarno Egunaren karietara

Xan HARRIAGUE

Ikastolako bigarren, hirugarren eta bosgarren mailako haurrek diskoa enregistratu dute berriki. Biltzen dituen zazpi kantuen lantzeko zenbait laguntza behar izan dute, guraso eta lagunena batez ere. Enregistramenduak Berako estudioetan egin dituzte eta jadanik prest dute heldu den igandean plazan aurkezteko, ikastolaren bestaren karietara.

Urteak joan, urteak etorri, ikastolaren besta erearoko hitzordu nagusietariko bat bihurtu da. Aurten ere Sagarno Egunarekin ospatzea hautatu dute. 11:00etatik 20:00ak arte txotx egiteko aukera izanen da sei sagardo egileren eskutik. Goizean bertsolariak ongi etorria kantatu eta gero, ikastolako haurrek ikuskizuna eskainiko dute, eta ondotik bazkaltzeko tenorea izanen da. Sagarno Eguna izaki, sagardotegiko menua izanen da: bakailao omeleta, txuleta eta gazi 22 eurorentzat. Bertsoen entzuteko aukera ere izanen da hor izanen baitira Patxi Iriart, Mizel Mateo, Julen Zelaieta eta Karlos Aizpurua. Bazkalondoan, 17:00etan, haurrek haien diskoa aurkeztuko dute, eta ondotik lekua Los Mosquitos taldeari utziko diote. Bertzalde, ez dute aspertzeko astirik izanen eguerditik goiti puzgarriak izanen baitituzte frontoian.

IKASTURTE BUKAERAKO ATERALDIAK

Ikasturtea finitzekotan da, eta jadanik hasi dira ateraldiak. Ama ikastolako ttikienak Zugarramurdira joanen dira ortzegunetik ortziralerako gaua pasatzera. Heldu den astean, berriz, ama ikastolako azken urtekoen eta lehen mailako lehen urtekoen txanda izanen da. Haiek urrunago joanen dira, Oriora, alegia, hiru egunentzat asteazkenetik ortziralera.

UTZITAKO ARGAZKIA

Iazko bestan herritar frango hurbildu zen sagarnoa jastatzera

UTZITAKO ARGAZKIA

Haizezko gaztelu eta jokoek frontoia bere egin zuten joan den urtean.

Xitoak txapeldun Hernanin

Errugbi taldeko xitoek irabazi dute joan den maiatzaren 31n Hernanin jokatu zen Landare izeneko txapelketa. Goizean, Azkaineko lagunekin etxeko eta Durangoko taldeen kontra irabazi zuten, eta finalera pasatu. Han hazpandarrak izan zituzten aurkari baina aise hartu zituzten menean 20 eta 0.

Benjamin mailakoek ez zuten hainbesteko xantzik izan, eta goizean Hernaniren kontra galdu eta, ez ziren finalera pasatu. Hirugarren tokirako partidan ere amore eman behar izan zuten Hazparneren kontra, eta azkenean herrira itzuli ziren laugarren postua eskuratuz, Miarritze, Hernani eta Hazparneren ondotik. Maila horretan ere Azkainekoekin aritu ziren.

SENPERE

Amaren alabak eta Peio eta Pantxoak alaituko dituzte herriko eta Amotzeko bestak

Erearoaren hondarrean hasiko dira

Franck DOLOSOR

Aintzirako bigarren bestak ederki iragan dira maiatzeko azken larunbatean. Aurten ere euria egin zuen baina giro ona sortu zen Ura izatea aintziran ez zen problema izan. Orain herriko eta Amotzeko bestak hurbiltzen ari dira. Lehenak erearoaren azken asteburuan ditugu eta Amotzekoak bi aste geroago. Urtero bezala, programa aberatsa prestatu dute besta batzordeek. Zikiroa eta Xiba jolasez gain, igandean, erearoak 29, herritarren bazkaria eginen da Senpere kantuz taldearekin eta bertsolariekin. Ondotik, herriko zonbait kantari eta musikari entzunen dira: Brave anaiak, Eneko Bessonart, Iraia Lascano eta Jean-Michel Bereau. Amotzen, aldiz, Peio eta Pantxoa bikote ospetsua entzunen da.

ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Oxtikenekoak bi diska kaleratu ditu kantu xaharrekin

Oxtikenekoak kultura elkarteak bi diska plazaratu ditu berriki. Lan hauetan, aitzineko kantu xaharren egunetan grabatu diren zonbait kantu entzuten ahal dira. Ainitzek uste dute aspaldiko gauzak bertzerik ez direla baina euskal literaturaren eta ahozko ondarearen lekukoak dira herritar frangok oraino gogoan dituzten kantu herrikoi eta bertso hauek. Bilketa lan honi esker, ez dira sekulan galduko gure aitzinekoek ederki kantatzen zituztenak. Argazkian Mixel Mendiburu eta Auxtin Zamora ageri dira.

ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Amen Eguna gogoan

Herriko Etxeko hautetsi berriek besta berri bat apailatu dute amen besten karietarat.

ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Lehen Jaunartzeak

Maiatzaren 18an Lehen Jaunartzea egin zuten herriko gazteek.

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

Manolo
VICENTE ELIZAGOIEN
Etxalarren hil zen, 84 urte zituela

Nere bihotza,
inoiz ez
zaitut atzenduko.

ZURE EMAZTEA

EZKONTZAK

Jabier Ezkurra Altzuri eta **Jaione Sanz Mariezkurrena**, Doneztebekoak, maiatzaren 13an Donezteben.
Raul Saldias Salaberri eta **Izaskun Makazaga Arratibel**, Iturengoa eta Goizuetakoa, maiatzaren 17an Goizuetan.
Gaizka Zubia Etxegia eta **Maider Perez Lopez**, Goizuetakoa eta Irungoa, apirilaren 26an Goizuetan.
Juan Jose Bazterrika Indakoetxea eta **Begoña Larralde Bengoetxea**, Sunbillakoa eta Lesakakoa, maiatzaren 23an Lesakan.
Oskar Goienetxe Ariztegi eta **Rosa Mª Arrola Gil**, Etxalarkoa eta Barakaldokoa, maitzaren 24an Etxalarren.
Ricardo Rodriguez eta **Marta Aizkorbe**, Gasteizkoa eta Iturengoa, maiatzaren 24an Iturenen.
Miguel Angel Eugi Apeztegia eta **Idoia Urtxegi Telletxea**, Igantzikoak, ekainaren 3an Igantzin.
Vincent Le Gorrec eta **Gwendoline Rekete**, maiatzaren 17an Saran.
Aitor Baztarrika Zelaieta eta **Maite Redondo Salgado**, Iruritakoa eta Elbetekoa, maiatzaren 18an Elizondon.
Gorka Aranguren Pellejero eta Ainhoa Zaldua Mas, Lesakakoa eta Donostiakoa maiatzaren 24an Elizondon.
Ignacio Goñi Otxandorena eta **Miren Galartza Beunza**, Elizondokoa eta Iruñekoa, maiatzaren 31n Elizondon.
Joseba Ramon Iantzi Aranburu eta **Josune Pikabea Mitxelena**, Berakoa eta Lesakakoa, maiatzaren 24an Beran.

SORTZEAK

Oihan Mujika Garnika, Urdazubikoa, maiatzaren 10ean.
Kattalin Retegi Fernandez, Leitzakoa, maiatzaren 15ean.
Naira Martin Sukuntza, Leitzakoa, maiatzaren 16an.
Unax Zabaleta Garzia, Leitzakoa, maiatzaren 24an.
Beñat Espelosin Salaberria, Doneztebekoa, maiatzaren 17an.
Aingeru Salaberria Zabala, Goizuetakoa, maiatzaren 24an.
Endara Lujanbio Eneterreaga, Lesakakoa, maiatzaren 13an.
Eñaut Korta Bikuña, Lesakakoa, maiatzaren 27an.
Oinatz Madariaga Alberdi, Arantzakoa, maiatzaren 22an.
Oihan Goizueta Baleztena, Aurtizkoa, maiatzaren 22an.
Aitana Retegi Sorozabal, Sunbillakoa, ekainaren 2an.
Naia Etxeberri Azkarraga, Sarakoa maiatzaren 23an.
Aitor Mikelarena Igoa, Zigakoa, maiatzaren 13an.
Irati Meoki Ballarena, Elizondokoa, maiatzaren 18an.
Joritz Barberena Meoki, Lekarozkoa, maiatzaren 19an.
Amaia Ariztia Goienetxe, Amaiurkoa, maiatzaren 22an.
Jorge Alexander Vasquez Belasco, Elizondokoa, maiatzaren 20an.
Ane Lertxundi Txakon, Elizondokoa, maiatzaren 24an.
Enara Mindegia Argain, Iruritakoa, maiatzaren 27an.
Leire Mindegia Argain, Iruritakoa, maiatzaren 27an.
Lorea Lizardi Mujika, Elizondokoa, maiatzaren 29an.
Aitziber Ballarena Telletxea, Elizondokoa, maiatzaren 27an.
Ortzadar Iratzoki Senper, Berakoa, maiatzaren 26an.
Xul Paniagua Camison, Berakoa, maitzaren 26an.
Mattin Zelaieta Lazkano, Urrozkoa, maiatzaren 18an.

HERIOTZAK

Serafina Fagoaga Coloma, Leitzakoa, maiatzaren 30ean, 85 urte.
Jose Miguel Jorajuria Telletxea, Elgorriagakoa, maiatzaren 27an, 37 urte.
Concepcion Dorremotzea Etxebertz, Erratzukoa, maiatzaren 25ean, 75 urte.
Nicolasa Perurena Mikeo, Berakoa, maiatzaren 27an, 80 urte.
Ixidora Iratzoki Matxikote, Berakoa, maiatzaren 29an, 84 urte.
Julian Mitxeltorena Andiarena, Donamariakoa, maiatzaren 29an, 97 urte.
Jose Manuel Vicente Elizagoien, Etxalarkoa, maiatzaren 29an, 84 urte.
Francisca Irigoien Aleman, Zigakoa, maiatzaren 29an.
Jose Manuel Landa Iturralde, Elizondokoa, maiatzaren 29an, 60 urte.
Josefa Telletxea Mindegia, Berakoa, ekainaren 3an, 87 urte.
Helene Landa Tarrapataka, Sarakoa, maiatzaren 1ean.
Xan Urbistondo Ihitia, Sarakoa, maiatzaren 23an.

JOZEMI
Elgorriko lagun maitea,

hiredadiskidetasunaren
haizepela,
hirebizipozaren
itturfmiexkoa,
hiregizatasunaren
larnbeerdea,
betizanenttukgurebaitan

BERAKO LAGUNAK

ESKUBALOIA

Nafarroako kopa irabazi du jubenil mailako Baztango Kirol Taldeak

Baztango neskek 29 eta 21 irabazi zioten Lagunak taldeari

ttipi-ttapa

Eskubaloian Nafarroako Kopako txapel bat Baztanen da. Maiatzaren 24an jokatu ziren kopako txapelketako finalak, lau kategoriatan eta bakarrean zegoen eskualdeko ordezkaria. Jubenil mailako nesken kategorian, Baztango Kirol Taldea eta Barañaingo Lagunak izan ziren aurrez aurre eta Baztango neskek garaipena lortu zuten, 29 eta 21 irabazita.

Talde honek itxura ederra eman zuen joan den denboraldian ere. Jokalari gehienak lehenbiziko urtea izanik kategorian ligan hirugarrenak izan ziren. Taldeak hobera egin du denboraldi honetan eta ia liga irabaztea lortu zuten. Azkenean azpitxapeldun izan ziren. Ligaren ondotik, denboraldiko azken hilabeteotan kopa jokatu dute. Portaeragatik eta egindako lanarengatik merezi zuten titulua lortzeko aukera zuen taldeak, nahiz eta bidea zaila izan. Itzuli bakarreko ligaxka jokatu behar zuten taldeek eta bi lehenbizikoek bakarrik zuten finalera zuzenean sartzeko modua. Halere, itxura ederra eman zuten ligaxka horretan eta partida bakar bat ere galdu gabe lortu zuten finalerako sailkatzea. Neska gehienek heldu den urtean senior mailara salto eginen dutela kontuan hartuz, gazte mailako titulua lortzeko azken aukera zen talde kide aunitzentzat.

Ordura bitarte egindako ibilbidean bezalaxe, gogoz eta indarrez aritu ziren finalean finalean, defentsan eta atezaintzan lan bikaina eginez eta kontraerasoan ezin hobe moldatuz.

Burlatako David Neira Carrasco entrenatzailearen erranetara, 13 neskek osatu dute aurten jubenil mailako Baztango Kirol Taldea.

ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

Kontent egoteko arrazoirik ez zaie falta BKTko jubenil mailako neskei.

AUTO TRIALA

Jon Almandoz beratarra nagusitu da Doneztebeko 4x4 Auto Trialean

33 gidari nafarrek parte hartu zuten

ttipi-ttapa

Doneztebeko 4x4 autoen triala egin zen lehendabiziko aldiz maiatzaren 31n, Aparan industrialdean. Inguruko gidariak biltzen dituen Erroila Rasin klubak antolatu zuen, eta Pitti eskabazioak, Zoansa eta Arincar 4x4ren ekimena izan zen.

Egun euritsua izan zen eta lohi haundia sortu zen Aparanen. Guztira 36 auto gidarik eman zuten izena, baina 33k parte hartu zuten. Parte-hartzaile guziak Nafarroakoak ziren, gehienak inguru honetakoak, baina baita Zangotza edo Sakana aldetik etorritakoak ere. Sailkapen ezberdinak egin ziren, autoak seriekoak edo prototipoak ziren kontuan hartuz, eta hauen artean, gurpilen neurrien arabera.

Halere, sailkapen orokorra kontua hartuz, Berako Jon Almandoz izan zen irabazle. Bigarren postua Aresoko Josu Pellejerok eskuratu zuen eta hirugarrena Sakanako Mikel Ixelak. Ez ziren saritu bakarrak izan. Antolatzaileen erranetan, lanik handiena gidari eroenari emandako saria erabakitzeak eman zuen, gehienek ere horretarako merituak egin baitzituzten. Azkenean, Legasako Iker Oteizak eskuratu zuen. Bertako gidari onenari emandako saria Oizko Koldo Mindegiarentzat izan zen.

Sariak sari, parte-hartzaileek nahiz ikusleek ederki pasatu zuten proba ikusgarri honetan eta seguru heldu den urteko bigarren edizioa prestatzen hasiak direla Erroila Rasin taldekoak.

ARGAZKIAK: ALBERTO ARNEDO

Ezkerrean Jon Almandoz irabazlea; goian antolakuntzan lanean aritu zirenak eta beheitian auto trialeko momentu bat ageri da.

MENDIA

Lesakako IX. Mendi Itzulia eginen da igande honetan

Mendizaleek ibilbide luzea eta laburragoa izanen dituzte aukeran

ttipi-ttapa

Arantza, Baztan eta Sararen ondotik Lesakak hartuko du lekukoa. Lesakako Beti Gazte Elkarteak antolatuta, igande honetan, ekainak 15, eginen da Lesakako Mendi Itzuliaren bederatzigarren edizioa. Bertze aldietan bezala, bi ibilbide izanen dituzte aukeran mendizaleek: luzea —33 kilometrokoa eta 1.700 desnibela— eta laburragoa —25 kilometro eta 1.100 metroko desnibela—.

Plazatik abiatuta, pasatuko diren tontorrak hauek izanen dira: Piperla (705m), Bindago (783m), Galtzarrieta (824m), Bianditz (844m), Errenga (787m). Behin Domikoko presa ttikira ailegatuta, ibilbide luzea edo motza aukeratu beharko da. Laburra hautatzen dutenak Domikoko presa ttikitik Goiko Iragara zuzenean joanen dira bi kilometroko bidea eginez. Luzearen aldeko apostua egiten dutenek, berriz, Kopa (594m) eta Aginako (618m) tontorrak zapalduko dituzte. Hortik herrira jaitsiko dira mendizaleak.

Mendi Itzulia goizeko 7etan abiatuko da Lesakako plazatik, eta ibilbidean barna jan eta edateko postuak izanen dira.

ARGAZKIAK: ARTXIBOKOA ETA OINARTEK UTZITAKOA

Goiako argazkia duela bi urteko Lesakako Mendi Itzulian ateratakoa da. Behean, berriz, aurtengo itzuliaren perfila ageri da.

FUTBOLA

Beti Gazte A taldea nagusitu da alebin mailako Mastegiko futbol-7 txapelketan

Finalean, penaltiak behar izan zituen Mastegi A taldea menperatzeko

ttipi-ttapa

Azkeneko urteetan, Lesakako Beti Gazte Elkarteak alebin eta benjamin mailako neskamutikoei zuzendutako futbol-7 txapelketa antolatzen du Mastegi futbol zelaian. Lesaka, Doneztebe edo Baztan aldeko futbolariak ez ezik, Gipuzkoa aldekoak ere etortzen dira. Bi astez behin, igande goizetan, gainezka egiten du Mastegi futbol-zelaiak, partidak ikustera hainbat haur, guraso eta laguntzaile etortzen baitira. Aurten ere jokatu da Mastegiko futbol-7 txapelketa eta bukatu da dagoeneko denboraldia.

ALEBINETAN 13 TALDE

Alebin mailako azken partidak maiatzaren 24an jokatu ziren Mastegi futbol-zelaian . 13 talde aritu ziren lehian eta guztien artean Beti Gazte A atera zen garaile. Honela gelditu zen sailkapena: Beti Gazte A lehenbizikoa, Mastegi A bigarrena, Agiña A hirugarrena, Mastegi C laugarrena, Elizondoko San Francisco Javier A bortzgarrena, Mastegi D seigarrena, Agiña C zazpigarrena, Orereta zortzigarrena, Doneztebe bederatzigarrena, San Francisco Javier B hamargarrena, Mastegi B hamaikagarrena, Agiña B hamabigarrena eta Beti Gazte B 13. postuan.

BENJAMINETAN TXAPELIK EZ ESKUALDEAN

Aitzineko asteburuan, maiatzaren 18an, ligan lortutako sailkapenaren arabera, azken sailkapenak erabakitzeko benjamin mailako partidak jokatu ziren. Lehen postuan ez ziren eskualdean gelditu, Irunlarreako eta Mastegiko taldeentzat izan baitziren. Honela gelditu zen benjamin mailako sailkapena: txapelduna Irunlarrea A, bigarrena Irunlarrea B, hirugarrena Mastegi, laugarrena San Francisco Javier, bortzgarrena Irunlarrea C, seigarrena Beti Gazte A, zazpigarrena Doneztebe A, zortzigarrena Doneztebe B, bederatzigarrena Beti Gazte B eta hamargarrena Be-

ARGAZKIA: JUANJO GUERRERO

Alebinetan argazkian ageri den Lesakako Beti Gazte A gelditu zen txapeldun.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ERAKUSKETAK

LESAKA

Ekainaren 13ra arte, Martin Sarobe Pueyoren Lesakako argazkien erakusketa, Beti Gazten (17:00-20:00).

FILMAK

LEGASA

Ekainaren 13an, *Mozart txakurra* filma Udaberriko Biraren barne, 22:00etan.

ANTZERKIAK

LESAKA

Ekainaren 13an, *Ostadarra ukitu zuen neskatxa* antzerkia Iran Ikastetxeko gimnasioan, 21:00etan.

ETXALAR

Ekainaren 15ean, Kuko, Truko eta Bolenwaider taldearen eskutik *Taulara* antzezlana, 15:30ean.

OSPAKIZUNAK

LEITZA

Ekainaren 14an, Zaldi Eguna Aurrera Perra Taldeak antolatuta. Egun guztian ekitaldiak.

BERA

Ekainaren 14an, Berako Kirol Eguna. Xehetasun gehiago 22. orrialdean.

GOIZUETA

Ekainaren 14an, Andres Narbarte Xalto eskolaren 25. urteurrena ospatzeko besta. Xehetasunak 37. orrialdean.

ZUGARRAMURDI

Ekainaren 21ean, Sorginen Eguna, Akelarre Elkarteak antolatuta. Xehetasunak 35 eta 48. orrialdeetan.

ARANTZA

Ekainaren 24an, Zahar Txokoko besta. Xehetasunak 27. orrialdean.

TELEBISTAKO TXOKOA

Berako Kirol Egunaren IV. edizioa ttipi-ttapa telebistan

EKAINAREN 16AN IKUSGAI

Laugarren urtea beteko du larunbatean Berako Kirol Egunak. Goizetik hasita kirolari eskainitako eguna izanen da, era guztietako kirolak egiteko aukera eskainiko duena: aerobic, dantza, futbola, ciclo indoor... Berako kiroldegiak eta Kirol Batzordeak antolatutako ekimen hau urtetik urtera gero eta indar haundiagoa hartzen ari da eta **TTIPI-TTAPA TELEBISTA** ere han izanen da. Hau, ordea, ez da asteburuko kirol ekitaldi bakarra izanen. Lesakan igandean eginen den Mendi Itzuliko irudiak ere jasoko dituzte, eta batekoak zein bertzekoak ikusgai izanen dira ekainaren 16tik aitzinera.

ZELIAKOETAZ SOLASEAN

Hagitz bertzelako gaia landuko dute ortziral honetako, hilak 13, erreportajean. Zeliakoen mundura hurbilduko da **TTIPI-TTAPA TELEBISTA**. Jatea plazerra da, baina ez beti, eta hori da zeliakoen kasua. Nahi dutena jateko muga haundiak dituzte, glutena ezin dutelako jan. Zeliakoak betiko dira zeliako, eta badakite zerk eragiten dien intolerantzia. Baina zenbateraino du gizarteak horren berri? Zeliakoa duten haurren bi amekin, Nafarroako Zeliakoen Elkarteko kide batekin eta jateko ezintasun hori duen 17 urteko elizondar batekin egonen dira telebistakoak biharko erreportajean.

DISKAK

Korridoak eta saltsa beroak

ELKAR, 2008

Euskal Herriko talde ezberdinen abestietan oinarrituz, bilduma berria kaleratu du Elkarrek: *Goza-goza suabesito!!* Korridoak eta saltsa beroak bildu ditu: Sorgindu (Imuntzo eta Beloki), Bota bota hona txebetxa (Joselu Anayak), Rosa Maria (Urgabe), Ibili hadi (Joselu Anayak), Anbotoko sorgina (Jokaldi), Uda kanta sargoriak (Zabaleta eta Imanol), Udaberri (Joselu Anayak), Dantza banba (Jokaldi), Zu nire amets (Joselu Anayak), Rock-calypso-mambo- cha Txatanuga (Futz Band), Mari Tere (Joselu Anayak), Country-sapotxin-jai jai (Jokaldi), Bahia (Trabuko), Baserrian bizi (Joselu Anayak), Euskalerria guria (Jokaldi), Gauero salda bero (Joselu Anayak), Ene pottolo (Joselu Anayak), Rico vacilon Txatanuga (Futz Band), Kolore kolore Michel (Ducau & Zaldibobo), Kupela (Barrel remix Kupela).

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(maiatzaren 23tik 30era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 21,00 € (-4,00)

Zerri gizena
1,185 € kiloa. (+0,035)

Zerramak:
0,480€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,01 (=)
1.koa 3,71 (=)
2.koa 3,05 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,11 (=)
1.koa 3,81 (=)
2.koa 3,15 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 198,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,10/3,20
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,70/6,50
8-10 kilokoak: 4,80 /5,30

JAKIN BEHARREKOAK

Etxe baten salmentatik jasotakoarekin berri bat erostea arriskutsua izan liteke

Hala ohartarazi du Irache Kontsumitzaileen Elkarteak

Bigarren eskuko etxebizitzak saltzea gero eta zailagoa da, eta horren ondorioz, etxe hori salduz berria erosteko aunitzen asmoa bere horretan gelditzen da maiz. Hortik haratago, etxebizitza berriaren kontratua deuseztatzea ere ez da batere erraza.

Etxebizitzen merkatuan dauden prezioak ikusita, etxe berriaren hipoteka ordaindu ezinik, aunitz dira ordurarteko etxea saltzea erabakitzen dutenak. Horrela, etxebizitza hori saltzean jasotako diruarekin bertzea ordaindu nahi izaten dute.

Gero eta zailagoa da etxebizitza bat saltzea. Irache Kontsumitzaileen Elkarteak emandako datuen arabera, 2006an Nafarroan pisu bat saltzeko batez bertze zortzi hilabete behar ziren; 2007an, ordea, 12-14 hilabete.

Etxebizitzaren merkatua krisian murgildua dago.

Hori dela eta, Iracheren arabera, *«ordurarteko etxea saldu ezin bada eta etxebizitza berriko gastuei aitzin egiteko dirua garaiz ez lortuta, egoera zailean geldi daiteke herritarra»*. Halakoetan, saltzeko dagoen etxebizitzaren prezioa jaistea izan liteke aukera bat, baina erosketa egiterakoan diru guttiago jasoko dugula gogoan hartuz; bigarren aukera mailegu berriak eskatzea izan liteke. Baina honek zorra gehiegi puztu lezake; edo bertzela, etxebizitza erosteko asmoa bertan behera uztea. Baina, egoera ez da hain samurra. Promotoreak eta bankuak ez baitute batere errazten kontratua etetea.

Promotoreengan ohikoa bihurtu da erosleak kontratua ez betez gero, isuna ordaintzera behartzen duen klausula sinatzea. Halako isunak altuak dira, zenbaitetan 14.000 eurorainokoak. Horrez gain, zigor-klausula ordaintzeari uko eginez gero, auzitara joan daiteke guztia, eta baliteke bide horretatik gehiago ordaindu behar izatea.

Salerosketa egiten den momentuan kontsumitzailea promotorearen eskuetan geldi tzen da eta kontratua deuseztatzea garesti atera dakioke kontsumitzaileari. Horregatik ohartarazi dute Irachetik etxe baten erosketa bertze baten salmentatik jasotako diruarekin egin nahi bada, ongi aztertzeko abantailak eta desabantailak.

LIBURUAK

Mirari hegalari

Iñaki ZUBELDIA

IBAIZABAL, 2008

Mirarik, hamar urteko neskatila jatorrak, makina bat iseka eta mesprezu pairatu behar izan du ttikia delako. Ikaskideek nahigabearen eta tristuraren pozoia sartu diote bihotzean, eta behin baino gehiagotan isilka, negar eginez arindu behar izan du barruko samina. Batzuetan Janire eta Enara, bere bi lagun zintzoek, eman diote kontsolamendua edo kendu diote barruko tristura. Egoera horretatik ateratzeko ideia bat handitzen eta puzten joan zaio barruan. Bere ausardia erakutsiko die ahobero guztiei, hegaldi harrigarri bat eginez. Denak txundituta utziko ditu bere balentriarekin eta herri osoak *«heroi»* haunditzat hartuko du Mirari. Nolako hegaldia izan den jakin nahi duzu? Hori liburuaren barruan daukazu. Jabier Erostarberen zuri beltzeko marrazkiekin apaindu liburua Iñaki Zubeldia idazleak eta 10 urtetik goitiko neska-mutikoei bideratua dago.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

MENDI ATERALDIAK

LESAKA

Ekainaren 15ean, Lesakako IX. Mendi Itzulia, Beti Gazte Elkarteak antolatuta. Xehetasunak 53. orrialdean.

BESTAK

ARIZKUN

Ekainaren 20tik 24ra, Sanjuan bestak. Xehetasunak gehigarrian.

DONEZTEBE

Ekainaren 27tik uztailaren 1era, Sanpedro bestak. Xehetasunak gehigarrian.

ERRATZU

Ekainaren 27tik 30era, bestak. Xehetasunak gehigarrian.

BERA

Ekainaren 13tik 15era, Altzateko bestak. Xehetasun gehiago 21. orrialdean.

SALDIAS

Ekainaren 20tik 24ra, Sanjuan bestak. Xehetasunak 34. orrialdean.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Ekainaren 14an, Joxeina Etxeberria Lur dantzalekuan, 01:00etan. Sarrera: 8 euro.

DANTZAK

BERA

Ekainaren 14an, Thalia eta Acronindarren dantza saioa. 20:30ean Kultur Etxean.

BILERAK

LESAKA

Ekainaren 18an, Dolu-babes taldearen bilkura Senda Fundazioaren eskutik. Udalaren Erabilera Anitzeko Gelan, 19:30etik 21:00etara.

MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA
301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA
401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA
501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK
801. Agurrak





ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LESAKA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen **proiektua**, lurrarekin eta lizentziekin salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, ur zikinen putzua... Promotorerik interesatua egonez gero, permutarako prest. 40 milioi Pta. %678 526091.

ZUGARRAMURDI. Bi familientzako etxebizitza salgai, bakoitza 170m²koa. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela-jangela, itxitako garajea. 600m²ko lorategia. 295.000 euro. %615 744433.

IRUN. Hiri erdialdean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea tresna guztiekin, bainugela, berokuntza eta igogailua. %637 559152.

DONEZTEBE INGURUAN. Etxe adosatu politat salgai. Sartzeko prest. %666044176.

LEITZA. Pisua salgai, zazpi pisutako etxean. %635 714237.

BERA. 90m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela, jangela, sukaldea eta igogailua. Kapritxora zaharberritua. Prezio interesgarria. Egiazko interesa dutenek bakarrik deitu. %629612614.

DONEZTEBE. Pisua salgai. 26 milioi pezeta. %607 978656.

DONEZTEBE. Zazpigurutze auzoan 100m²ko pisua salgai. %639 184210.

BERA. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua eta aparkalekua. 200.000 euro. %606 586709.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan emateko

BERA. Agerra auzoan pisua errentan emateko. Igogailua, berogailua eta 3 logela. %659 963960.

TWIN PEAKS. Familia euskaldun batek estudio bat errentan emanen luke epe motzetarako. San Frantziskoko Unibertsitatearen ondoan, leku lasaia eta autobus geltokitik hurbil. Harrera pribatua, bainugela, hozkailua, ohe-sofa, telebista... *aupasf@gmail.com*.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

DONEZTEBE. 70m²ko bajera salgai, 99.500 eurotan. %618 881924.

ZERBITZUAK

205 Zurginak

LANA

301 Eskariak

BAZTAN aldean emakume batek adinekoak zaintzen edo etxeak garbitzen lan eginen luke. %690 941799.

LESAKA. 38 urteko emakumeak adinekoak edo haurrak zaindu, edota etxeko la-

nak eginen lituzke. %948637100 (deitu 20:00etatik aitzinera).

LANA
302 Eskaintzak

BERA. Benta Migelen mutil bat behar da biltegian eta dendan lanean aritzeko, urte osorako. %948 631394.

ELIZONDO. Pertsona bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. %680243027.

BERA. Auzoa jatetxean sukaldari laguntzailea behar da. %654385363.

BERA. Zalain jatetxean sukaldari laguntzailea behar da. %948 630967.

OITZ. Fregaderarako langilea eta zerbitzaria behar dira igandetan lan egiteko. %948 451951.

ANTSOAIN. Ile-apaintzaile ofiziala behar da. Baldintza onak. %649 457183.

ETXALAR. Hotel Etxalarren soroslea behar da uztail eta abuzturako. %948 635000.

BERA. Ibardingo opari-denda batean frantsesa pixka bat dakien pertsona euskalduna behar da udan eta asteburuetan lan egiteko. %948 630718.

BERA. Ibardinen udan lan egiteko neska bat behar da. %948 630734.

BERA. Jatetxe batean udan lan egiteko zerbitzari bat behar da. %948 630392.

BERA. Ileapaindegi batean laguntzaile bat behar da. %948 631462.

BAZTAN. Enpresa batean langileak behar dira. Bidali curriculuma: P. Ku. 57, 31700 Elizondo.

MOTORRA
501 Salerosketak

Xsara HDI 1.9-90 zaldi salgai. Egoera onean, 2004ko urrikoa. %650 948330.

Volkswagen Polo GT autoa salgai, 90 zaldi. NA-AJ. Egoera onean, 108.000 km. 900 euro. %679 419321.

Seat Leon TDI salgai, 110 zaldikoa. Egoera onean eta 7.500 eurotan. %620011246.

Peugeot 306 salgai, 1995ekoa, 200.000 kilometrorekin. Egoera onean. 2.500 eurotan. %678 946813.

Honda CR 250 R 2004ko azaroko motorra salgai. Oso egoera onean eta errebisioa egin berria. 3.500 euro. %639465642.

BMW R 850R **motorra** salgai. 2005ekoa, 30.000 kilometrorekin. ABS. 7.000 eurotan. %617 283247.

MOTORRA
502 Tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE
SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

TALLERES SANTESTEBAN
948 450282 • DONEZTEBE
ESKAINTZAK
Traffic 9 plazakoa, 2007koa
Clio III 1.5 DCI, 2007koa
Espace 2.0 DCI, KM0
Kangoo 1.5 DCI, 2007koa
Suzuki Santana, 2006koa
BIGARREN ESKUKOAK
Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Citroen Saxo 1.9 D, Clio Confort 1.5 DCI, Citroen C-15 1.8 D, Peugeot 307 1.6, Laguna 1.8, Clio 1.2, Laguna 1.9 DCI 120 CV.

ANIMALIAK
601 Emateko

Urte bateko **ardi zakurra** oparitzeko. %696 254741.

Katakumeak oparitzeko. Ama ehiztari ona. %948 451787.

ANIMALIAK
602 Salerosketak

Setter arrazako **hiru zakurkume** salgai. Maiatzaren 22an hiru hilabete eginen dituzte. Txertatuak eta parasituak kenduak. 200 euro. %661 821645.

Cocker arrazako **hiru zakurkume** salgai. Marroiak eta beltzak. Bi hilabete eta erdi. %948 387016.

Spaniel breton arrazako **zakurkumeak** salgai. Atta eta ama ehiztari onak. %647569637.

DENETARIK
701 Galdu/aurkituak

PSP **Play Station portatila** desagertu da Zubiondo jatetxean maiatzaren 18an. Eskertuko da. %948 631121.

LESAKA. Otsango auzoan betaurreko graduatuak aurkitu dira. Urdinak soka berdearekin. %626 746898.

DENETARIK
702 Salerosketak

John Deere markako **enpakadora** eta **belarra biltzekoa** salgai. %649 575549 (goizez deitu).

Soropil-mozteko (cortacesped) **traktorea** salgai, Husqvarna 14 h.p. marka, ekonomikoa. %610 578591.

Logela salgai: 1,05 metroko ohea koltxoia eta somierrarekin; 2 gau-mahai eta idaz-mahaia bere apalarekin. Gaztainarekin egina. %948 450950.

Esmena markako **apala** eta lanerako **mahaia** salgai (urdinak eta naranjak). Egitura metalikoa eta apal aglomeratuak. %686 487698.

LG markako **haize egokitua, bero eta hezetasuna kentzeko makina** salgai, egoera onean. Modeloa LG P03AH. %686 487698.

Traktoreentzako gurdia salgai. MMA, 3.000 kilo, 1,5 metroko zabalera eta 2 metroko luzera. Esku-freno eta erremolkearekin.

urtebetetzeak

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin. www.ttipi.net

Etxalarko **Olaia Iturriak** ekainaren 9an 6 urte bete ditu. Zorionak eta egun zoragarria pasa dezazula. Muxutxoak atatxi eta amatxien partetik.

Olaia Iturriak 6 urte bete ditu. Lasai, attak erakutsiko dizu motoan ibiltzen. Zorionak atta, ama eta anaia Mikelen partetik.

Olaiak 6 urte bete ditu. Aupa potxola eta segi gu alaitzen zure dantzekin!

Mari Jose Mitxelena Txoperena lesakarrak urteak beteko ditu ekainaren 28an. Muxu haundi bat bere lagun on baten partetik.

Duba zubietarrari aunitz urtez bere urtebetetzean, Ibarna eta Errandoneko familiaren partetik. Musuak.



Aimar Etxeberriak 5 urte bete ditu ekainaren 11n. Zorionak, muxu pottolo bat eta pedoneta bat familiaren eta berexiki Joor eta Xabierren partetik.

Maitane Mariezkurrenak 2 urte bete ditu ekainaren 10ean. Zorionak printzesa eta muxu asko atta, ama, atatxi, amatxi, Txui eta Pastorren partetik. Tu ke sues!

Unai Altzugarai Aranbillet beratarrak 9 urte bete ditu ekainaren 4an. Zorionak Almandozko familiaren partetik.

Nahia Lekuona Sanjuan lesakarrak 4 urte beteko ditu ekainaren 23an. Zorionak eta aunitz urtez atta, ama eta familiaren partetik! Muxuak sorgintxu!

Zorionak **Aitor** eta **Reyes**; eta **Aitor** eta **Eneko**. Ailegatu da egguna! Ekainaren 14an ezkontza eta jaiotza ospatuko ditugu. Ongi pasa eta zoriontsuak izan familiaren partetik!

Janire Mindegia Etxeparek ekainaren 18an 7 urte eginen ditu. Aunitz urtez Janire beltxbeltxari. Lesakako osaba-izeben partetik.

Maialen Ruiz Altzuguren beratarrak 8 urte beteko ditu ekainaren 4an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren eta berexiki Leiren partetik.

Hegoi Indabere Goienetxek 2 urte beteko ditu ekainaren 12an. Zorionak ganberro familiaren partetik.

Sunbillako **Asier Lanzak** 4 urte bete ditu ekainaren 2an. Muxu haundi bat gurasoen eta batez ere Ikerren partetik. Ondo pasa eguna!

Inhar beratarrak 4 urte beteko ditu ekainaren 14an. Zorionak eta muxu pila bat familiaren guztiaren partetik.

Urrozko amatxi **Margarik** 82 urte beteko ditu ekainaren 17an. Aunitz urtez eta muxu haundi haundi bat familia guztiaren partetik.



Xuban, Ane eta **Ibai**. Zorionak hirukote laster zuen egun haundia ospatuko duzue. Zorionak eta muxu haundi haundi bat Oier, Iradi, Maialen, Egoi, Ekiñe, Eneit, Ekaitz, Oihan, Beñat eta amatxoren lagunen partetik. Merienda goxo goxoa prestatu.

Ane eta **Iker Agirretxe** lesakarrek ekainaren 18an eta uztailaren 1ean 5 eta 3 urte beteko ditutze. Zorionak Lesakako familiaren partetik.

Amaia Zelaieta Tomasena etxalartarrak 12 urte beteko ditu ekainaren 14an. Zorionak eta muxuak. Aita, ama eta Asier.



Berako **Manex Martikorena Saharreak** 8 urte beteko ditu ekainaren 16an, eta **Mikel Villanueva Saharreak** 7 urte ekainaren 5ean. Zorionak familia guztiaren partetik.



Oinatz eta Judith Leitzarrek 12 eta 26 urte bete dituzte ekainaren 9 eta 10ean. Zorionak eta azpintze bana printzesaren partetik.

Sunbillako **Xuban** eta **Ane Zelaietak** ekainaren 19an eta 29an 4 urte eta urtea beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik. Ongi pasa!!

Sunbillako **Ibai Apeztegia Etxebestek** 9 urte beteko ditu ekainaren 19an. Zorionak atta, ama, June, Janire eta familia guztiaren partetik.

Josebak ekainaren 17an urteak beteko ditu. Aunitz urtez kenairen partetik (bueltatxo baten esperoan). Zorionak!!!



Aitorek ekainaren 11n urteak beteko ditu. Aunitz urtez Ethanen partetik (*play*an partida baten esperoan). Zorionak!

Ane eta **Iker Agirretxe** lesakarrek ekainaren 18an eta uztailaren 1ean 5 eta 3 urte beteko ditutze. Zorionak Elizondo eta Beartzungo familiaren partetik.

Clinica Dental

IRURITA RUBIO

ODONTOLOGIA
ORTODONTZIA
INPLANTEAK

20 URTE ZURE ZERBITZURA

Dr. Jose Luis Irurita (Kol.240) • Dr.Biotza Rubio (Kol.241)
odontologia medikuak

Orain klinika handitu dugu eta azken aurrerakuntza teknologiko berrienekin hornitua, zuri diagnostiko eta tratamendurik hoberena emateko.

LEITZA
Manuel Lasarte, 7 esk.
948 610 713

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19 esk.
948 450 267

VIAJES MARFIL & VACACIONES

IRUÑA
BARAÑAIN
CORDOVILLA
TUTERA

18 egun

Argentina osoa

Azaroaren 20tik abenduaren 7ra

Informazioa 948 206 246

Azaroak 20. NAFARROA-MADRID-BUENOS AIRES
Iruña-Madril autobusez. Hegaldia Barajas-Buenos Aires

Azaroak 21. BUENOS AIRES
Bisita panoramikoa San Telmo auzora, La Boca, Plaza de Mayo, Casa Rosada - Gobernuko egoitza, Cabildo, Katedrala, Mayo etorbidea, Kongresuko Plaza... Arratsaldea libre

Azaroak 22. BUENOS AIRES
Bisitatu Recoleta, Palermo eta San Isidro auzoak. Parana ibaiaren Deltara txangoa (bisita itsasontziz). Arratsaldea libre

Azaroak 23. BUENOS AIRES-TRELEW
Trelewra hegaldia. Arratsaldea libre

Azaroak 24. VALDES PENINTSULA
Valdes Penintsulara egun osoko txangoa. Itsasoko Faunaren erreserba, Hegaztien Behaketa eta Interpretazio Zentroa eta Caleta Valdesen itsas elefante eta itsas lehoien kolonietara. Puerto Piramiden, baleak ikustera itsasontziz.

Azaroak 25. PUNTA TOMBO-USHUAIA
Punta Tombora Magallanes pinguinoen kolonia handienetariko bat ezagutzeko. Hegaldia Ushualara

Azaroak 26. USHUAIA
Beagle Kanaletik txango gidatua: Los Lobos irla, Los Pájaros irla, Les Eclaireurs Faros. Tierra del Fuego Parke Nazionala. Lago Roca eta Bahía Lapataia

Azaroak 27. USHUAIA-EL CALAFATE
Hiria eta Fin del Mundo Museora. Hegaldia El Calafatera

Azaroak 28. GLAZIARREN PARKE NAZIONALA
Upsalla, Onelli, Agassiz eta Bolado glaziareak itsasontziz

Azaroak 29. PERITO MORENO BARILOCHE
Bisita gidatua Perito Moreno glaziarrera. Hegaldia Barilochera

Azaroak 30. BARILOCHE
Circuito Grande txangoa: Encantado bailara, Trafui Lakua, Nahuel Huapi lakuaren iparraldeko kosta, Correntoso Lakua, La Angostura hiria, Espejo Lakua, Cerro Bayo eta Rio Bonitoko ur-jauzia

Abenduak 1. BARILOCHE-BUENOS AIRES
Circuito Chico txangoa: Patagonia erdialdeko Bariloche hiria, Nahuel Huapi lakua, Llao Llao penintsula, Cerro Campanario eta Barilochera itzulera. Buenos Airesera hegaldia

Abenduak 2. BUENOS AIRES
Egun librea.

Abenduak 3. BUENOS AIRES
Egun librea.
Gauean Tango ikuskizuna

Abenduak 4. BUENOS AIRES-IGUAZU
Hegaldia Iguazura. Iguazu ur-jauziak Brasil aldetik ikusteko bisita gidatua

Abenduak 5. IGUAZU UR-JAUZIAK
Iguazu ur-jauziak Argentina aldetik ikusteko txango gidatua, Garganta del Diablo barne

Abenduak 6. IGUAZU-BUENOS AIRES
Goiza libre. Arratsaldean hegaldia Buenos Aires-Ezeiza Nazioarteko aireportua-Madril

Abenduak 7.
Barajas-Iruña autobusez.
BIDAIAREN BUKAERA

3.683€
+ tasak

ez galdu aukera hau!

Prezioak barne hartzen du: hegaldi guztiak, joan-etorriak, 4 izarreko hoteletan 15 gau lugela bikoitzean (Trelewen izan ezik, hor 3 izarreko hotelean), mantenu-erdia, bisitak eta txangoak, gidariak, bidaiako asistentzia-asegurua.